GUAIXE.EUS

PRES TOKIKOM

Unnamables, jendaurrera bitan

Kultura >> 15

Mila Kolore elkartekoek bi beira edukiontzietan arte-interbentzioa egin dute. Koloreztatu eta natura eta ihote irudiak jarri dituzte

Sakanerria >> 14

Festaren aparrean

>>2-3/8

Uharten memoria historikoa, berreskuratzea eta aitortza

>>9

Bidea 2016, kultur hiriburutzaren lekuko ibiltaria

>>5

Aralarko aingeruak 60 lagun berri egin ditu

>>7

Arakilgo eguna astelehenean, Itsasperrin eta Ihabarren

>>7

Agiriko despopulatura lanera bueltan

>>8

Olaztiko San Migel pilota txapelketako finalak

>>11

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke: 3035 0018 47 0181012564

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

Unax eta Izaro!! ZORIONAK!! 2 urte!!! Beti ongi sentiarazten nauzue! Nire bizia alaitzen duzue. Asko maite zaituztet. Oso-oso ongi pasa!!! Muxu bana. Oihane Villegas.

ZORIONAK **Belatz!** Egun politte pasa. Aita , ama eta Ekain.

Maddi Gastaminza Betelu "Handitzen, handitzen..." Asteazkenean 9 urte Maddi!!! ZORIONAK, politte, Oihan, ama, aita eta etxeko guztion partetik!!! Muaksss!!!

Iosu. ZORIONAK guapo! Segi beti bezain jator izeten. Etxekuek.

ZORIONAK **Ibai!** Zure 9. urtebetetzean. Familia guztiaren partez muxu haundi bat, izugarri maite zaitugu!!

Oporretan gaude

Garilaren 29tik Agorrilaren 29ra

Bidali zure agurrak 27a baino lehen

guaixe.eus

Garilak 22-28

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Txaston. Garilaren 23an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko Urtzi tabernan.

Unnamables/Innombrables. Garilaren 23an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko Arkangoa tabernan.

Zinema

Pesadillas, creerás en los monstruos. Garilaren 27an, asteazkenean, 22:00etan Irurtzungo Foru plazan.

Udako zinema. Garilaren 28an, ostegunean, 22:00etan Egiarretako frontoian.

Mendi irteerak

Pirinioak. Garilaren 23an, larunbatean. Irurtzungo **Iratxo elkarteko mendi taldea.**

Otzaurte-Altsasu. Garilaren 24an, igandean, 8:30ean Altsasuko autobus geltokian. Otzaurteko bentatik abiatuta. 2016 bidea, 18. etapa.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Goñi-Altsasu. 115 km. Garilaren 23an, larunbatean, 8:00etan Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. **Zikloturista taldea**.

Bestelakoak

Arkeologia indusketara bisita gidatua. Garilaren 23an, larunbatean, 11:00etan Aralarko santutegi ondoan.

Arakilgo eguna. Garilaren 25ean, astelehenean, 11:00etatik aurrera Itsasperriko ermita inguruan.

Ur Festa Goxoa. Garilaren 28an, ostegunean, 21:00etan Lakuntzako igerilekuan. Gozamenez.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira!. Garilaren 22an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 24an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Festak Sakanan

IRURTZUN

>> Garilak 22, ostirala

10:00etan Dianak, trikitilariak.
10:00etan Pilota. Irurtzun txikien pilota kluba.
11:30ean Erraldoi eta buruhandien konpartsa.
11:30ean Helduendako joko eta jolas herrikoiak, Foru plazan. Han bertan izen ematea.
12:30ean Musika-bermuta Luzianorekin.
14:00etan Kalderete lehiaketaren epaia. Izen ematea 13:00ak arte, arkupeetan.
14:30ean Kaldereten bazkaria.
17:00etan Bazkalondoa eta kalejira, Artistas del Gremio ¡Felices agujetas! taldearekin.
17:30ean Noeren Arka: Gorriti eta bere animaliak, Gernika plazan.
19:15ean Kale-antzerkia. Niño Costrini: Humanus Comicus, Foru plazan.
20:30ean Dantzaldia Txo taldearekin.
22:00etan Larrain Dantza.
22:20ean Japoniar bonbak eta buruhandiak, Gernika parkean
22:30ean Zezensuzkoa. Kultur etxean hasi eta Gernika parkeraino.
00:00etatik 4:00etara Dantzaldia Txo taldearekin.

>> Garilak 23, larunbata

12:00etan Dianak, akordeoilariak.
11:45ean Gari, Montxo & Jose Lontxo Tutik Clowns: Kolore (Euskaraz). Herritar guztiendako plazan.
13:00etan Musika-bermuta Diamante negro taldearekin. (Tigres del Norte taldearen omenaldia, iparraldeko musika). Foru plaza.
14:30ean Jubilatuen bazkaria. Ondoren, dantzaldia.
16:00etatik 20:00etara Turismo trena. Ibilaldiak Gernika plazan hasi eta bukatuko dira.
17:00etatik 19:00etara Perkusio tailerra. La Percuta (adin guztiendako). Gernika plazan.
18:30ean Pilotari afizionatuen partida eta erremonte profesionaleko jaialdia (2016eko Nafarroako Foru Komunitatea saria kanporaketa). Sarrera librea.
19:00etan Lan-txakurren ikuskizuna eta erakusketa (Txapeldun), Foru plazan.
20:30ean Abiba Diskojaia.
22:00etan Larrain Dantza.
22:20ean Japoniar bonbak eta buruhandiak, Gernika parkean.
22:30ean Zezensuzkoa. Kultur etxean hasi eta Gernika parkeraino.
00:30etik 5:00etaraino Abiba Diskojaia.

>> Garilak 24, igandea

10:00etan Dianak, gaita-jotzaileak.
11:15ean Lodosako, Sanduzelaiko eta Irurtzungo Erraldoi eta buruhandien konpartsen elkarketa.
14:00etan Erraldoi eta buruhandien konpartsaren agurra.
18:00etan Irurtzungo dantza txikien eskolaren emanaldia, plazan.
18:30ean Eskorga-kronoeskalada.
20:30ean Dantzaldia Tximeleta taldearekin.
22:00etan Larrain Dantza.
22:20ean Japoniar bonbak eta buruhandiak, Gernika parkean.
22:30ean Zezensuzkoa. Kultur etxean hasi eta Gernika parkeraino.
00:00etatik 3:30era Dantzaldia Tximeleta taldearekin.
3:30ean Hau pena nik!

Barazki guneko egitaraua

>> Garilak 22, ostirala

14:30ean Gazteok ere kalderetera.
19:00etan Karaokea.
23:30ean Kontzertuak: Katez, Irrikan eta

Festak Sakanan

Dj Jo ta Txo.

Garilak 23, larunbata

17:00etan Mus eta partxis txapelketak. Ordu erdi lehenago izen ematea zabalik. 5 € bikoteko.
19:00etan Elektrotxufla elektrotxaranga.
22:30ean Herri afaria Foru plazan. Etxerat.
00:00etan Kontzertuak: Aztarna, Los Lucians, Marianitoz Blai eta Divida.

>> Garilak 24, igandea.

Peluka festa.

22:30ean Afari autogestionatua Barazki Gunean. Afaria etxetik eraman eta guneak edaria jarriko du. Ondoren I. Oliba Jaurtiketa Txapelketa.

Larrazpi gazte elkartearen egitaraua

>> Garilak 22, ostirala.

Tech house-techno gaua.

22:00 Atxus, Iosu Garate, Jonathan De la Torre, Leo Silva, Loksea eta Txen.

>> Garilak 23, larunbata.

Techno-elektro gaua

23:00etan Nöle, Ryth Moss, Bendiak, Aseptik Noise, Shen, Kima eta Unaikox.

BAKAIKU

>> Garilak 22, ostirala

19:00etan Etxajua Sakaranga Txarangaz girotua, buruhandiak eta japoniar bonbak.
20:00etan Bakaikuko Zortzikoa, plazan. Auzatea Bakaikuko ehiztari elkartearen eskutik.
22:00etan Afaria. Etxean eta bizirik nahi ditugu.
00:00etan Kontzertuak plazan: Garabatos eta Ingo Al Deu.

>> Garilak 23, larunbata

12:00etatik14:00etara Haur Parkea eskolako belardian: puzgarriak, segway, craybike eta zezen mekanikoa.
13:00etan Fustiñanako Jota Eskolaren emanaldia.
13:30ean Auzatea Jubilatu elkartearen eskutik.
16:30ean Pilota partiduak Iturrarte pilotalekuan.
16:30etik 19:30era Haur Parkea eskolako belardian: joku trena, puzgarriak, segway, craybike, eta zezen mekanikoa.
17:30etik 22:00etara Artisau azoka.
20:00etan Auzatea Gabriel Aresti Barnetegiaren eskutik.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Trikidantz taldearekin.
00:00etatik 4:00etara Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

>> Garilak 24, domeka

12:30ean Bakaikuko haur eta gaztetxoen arteko herri kirolak, plazan.
13:00etan Luisyana bikotearen emanaldia, plazan.
19:00etatik 20:00etara Aizkora apustua enbor handiekin plazan: Juanjo Lopez Azpilikueta VS Donato Larretxea.
19:00etan Salbea eta bezperak Santiagon.
20:00etan Auzatea Bakarrekoetxea elkartearen eskutik.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Gabenara taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30etik 3:30era Dantzaldia Gabenara taldearekin.

>> Garilak 25, astelehena

12:00etan Santio meza.

Irurtzungo festei hasiera eman zieten pasa den asteazkenean gogotsu.

13:00etan Diamante Negro taldearekin mexikar korridoak plazan.
17:30ean Apar festa eskola ondoko kantxetan (txankletak eraman).
19:00etan Etorkizuna dantza taldea.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Gabezin taldearekin.
00:30etik 3:30era Dantzaldia Gabezin taldearekin.

>> Garilak 26, asteartea

12:00etan Meza adinekoen omenez.
13:30ean Japoniar bonbak, plazan.
13:00etan Iñaki Bizkai musikariak giroturiko auzatea.
14:30ean Jubilatuen bazkaria eta omenaldia elkartean. Ondoren, Iñaki Bizkai musikariaren emanaldia.
19:00etan Play Back erakustaldia plazan.
22:00etan Herri afaria, plazan.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Oharkabe taldearekin.
00:00etatik 2:30era Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

Oharrak: Egunero goizez eta arratsaldez ardoa ohiko zilarrezko katiluetan banatuko du Udalak.Jaietan zehar goizez eta arratsaldez, Udaletxeko goiko aretoetan honako erakusketa hauek egongo dira: Bakaikuko jostun eta margolarien lanak, festen kartel lehiaketako kartelak, eta Bakaikuri buruzko argazki erakusketa.

Bakaikuko herri mugimenduaren egitaraua*

>> Garilak 22, ostirala

19:00etan Plazako hagetan gure ikurrak jasoko dira.
22:00etan Afaria. Etxean eta bizirik nahi ditugu, plazan.
00:00etan Kontzertua: Garabatos. Eta errromeria: Ingo al deu.

>> Garilak 23, larunbata

20:30ean AZ27an herri galdeketa herritarron mosaiko erraldoia, plazan. Ondoren, txistorra jatea Gure Esku Dagoren eskutik, plazan.
22:00etan Bokata jatea, plazan.
4:00etatik 7:00etara Tirri & Tery dj-ak, plazan. Musikaz euskal preso politikoak etxera!

>> Garilak 24, domeka

20:00tan Katxarro lasterketa, plazan.
22:00etan Gazte afaria.

>> Garilak 25, astelehena

Jantzi BGAko kamiseta
15:00etan Gazte Bazkaria, Aiztin
18:00etan Elektrotxufla elektrotxaranga herriari buelta.

>> Garilak 26, asteartea.

Mozorro eguna

19:00etan Herriari buelta musikarekin.
20:00etan Mozorroen sarrera triunfala plazan.

*Bakaikuko Gazte Asanblada, Gure Esku Dago, ezker abertzalea

Rock and roll in Bakaiku

>> Garilak 24, domeka

12:30ean Bermuta rock and roll erritmoan, Kotxkotik abiatuta.
14:30ean Bazkaria (kalean edo frontoian).
18:30ean Kalejira gurdi-rock mugikorrarekin.
20:00etan Zilarrezko tazan ardoa edatera.

OLATZAGUTIA

>> Garilak 23, larunbata

9:00etan San Migel elkarteko pilota XLIV. txapelketako finalak eta sari banaketa.
11:00etan Hamaiketakoa lan taldeetako parte-hartzaile eta udal langileendako, kultur etxean.
12:00etan Santa Anaren omenezko festak iragartzeko etxajua, kultur etxean. Kalejira La Cigarra txarangarekin. Erraldoi eta buruhandiak. Kartel lehiaketako sari banaketa. Zapi banaketa aurten jaiotako haurrei.
17:00etatik 20:00etara Txapa tailerra: Berdintasunaren alde festetan ere zure txapa egin. San Migel plazan.
17:00etatik 18:00etara Areto futboleko txapelketa: 3. eta 4. postuak. Areto futboleko pistan. Antolatzailea: Maisuenea gaztetxea.
17:00etan Txirrindularitza eskolen proba Erburua kiroldegiaren inguruetan. Sari banaketa.
18:00etan 19:00etatik Areto futboleko txapelketaren finala. Areto futboleko pistan. Antolatzailea: Maisuenea gaztetxea.
20:00etan Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan, San Migel plazan.
20:00etan Photocall: Eman bide euskarari. San Migel plazan. Antolatzailea: Aritu euskara taldea.
20:00etatik 22:00etara Dj Josuren musika emanaldia, San Migel plazan.
21:00etan Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00etatik 1:30era Kontzertua: Barrena, Barricada taldearen bertsioak. San Migel plazan.
1:30etik 3:00etara Dj Josuren musika, San Migel plazan.

>> Garilak 24, domeka

9:00etan Pilota txapelketako finalak eta sari banaketa. Antolatzailea: Sutegi taldea.
11:30etik 13:30era Ur parkea igerilekuan.
12:00etan Hamabietakoa, San Migel elkarteak eskainia, San Migel plazan.
13:00etan Kontzertua: Diamante Negro. San Migel plazan.
14:30ean Haurrendako bazkaria. Memoria historikoaren parkean. (Euria eginez gero Sutegi gimnasioan).
15:30etik 18:30era Ur parkea igerilekuan.
18:30ean Narcis Roca: bike motor show. Kiroldegi inguruan.
20:00etan Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan, San Migel plazan.
20:00etatik 22:00etara Jon Urbieta Djren musika, San Migel plazan.
21:00etan Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
23:00etan Bakarrizketa: Maribel Salas, San Migel plazan.
00:00etatik 4:00etara Jon Urbieta Djren musika, San Migel plazan.

>> Garilak 25, astelehena

11:00etan Hiru talderen arteko haur mailako areto futbola: Alsasua A, Alsasua B eta Olazti. Areto futboleko pistan. Antolatzailea: Sutegi taldea.
12:00etan Hamabietakoa maisuenea gaztetxearen eskutik. San Migel plazan.
13:00etan Kontzertua: Voces navarras. San Migel plazan.
14:30ean Untxi-kalderete lehiaketa. Memoria historikoaren parkean. (Euria egingo balu eskolako pilotalekuan). Parte hartu nahi dutenek 11:00etan Sutegi gimnasiora joan beharko dute suak eta bonbonak jasotzera. Kaldereteak 14:30erako bukatu behar dira epaimahaiak erabaki ahal izateko. Bazkaltzeko mahaiak, bankuak eta ardoa eskainiko dira.
16:30etik 18:30era Musika animazioa Rockalean taldearekin.
18:30ean Karoli, el hombre rueda. Sarasate plazan.
20:00etan Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan, San Migel plazan.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Alaiki taldearekin.
21:00etan Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
23:00etan Fusioak, Aukeran dantza taldea. Areto futboleko pistan. (Euria eginez gero frontoian).
00:00etatik 3:00etara Dantzaldia Alaiki taldearekin.

>> Garilak 26, asteartea.

Santa Ana.

12:00etan Bordetxe abere zirkua, areto futboleko pistan.
12:00etan Erraldoi, buruhandi eta gaiteroekin lagundurik mezatara.
12:00etan Hamabietakoa Santa Ana elkartearen eskutik, San Migel plazan.
13:00etan Kontzertua: Sakanako Trikitixak, San Migel plazan.
14:30ean Jubilatuendako eta adinduendako bazkaria, Kamiogaina elkartean. Bazkalondoan dantzaldia Luisyana bikotearekin.
14:30ean Herri bazkaria, Memoria historikoaren parkean. (Euria eginez gero eskolako frontoian). Udalak antolatua.
16:30etik19:00etara Munduko jolas parkea, San Miguel plazan.
17:00etatik 19:00etara Musika animazioa Elektrotxufla kaleko bandarekin.
19:00etan Ellas bailan solas kale antzerkia, Pikor teatro, Sarasate plazan.
20:00etatik 22:00etara Dj Raiztiren musika, San Miguel plazan.
21:00etan Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.
21:00etan Hegaluze parrillada, Vicente Argomaniz plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00etan Psycho-clown. Kaleko perkusio eta argiztapen ikuskizun ibiltaria, San Migel plazatik abiatuta.
00:00etatik 3:00etara Dj Raiztiren musika, San Miguel plazan.

Oharrak:Festa egitarauan aldaketarik egonez gero, www.olazti.com, facebooken Olazti Kultura , Twitter: @Olaztikultura eta kartelen bidez iragarriko da.

Olaztiko Gazte Asanbladaren egitaraua

>> Garilak 22, ostirala.

Gazte eguna

12:00etan Txupinazoa, ondoren poteoa herrian zehar.
14:30ean Bazkaria.
22:00etan VIII. Maisu-Tekno.

>> Garilak 23, larunbata.

Kuadrilen eguna

17:00etan Areto futboleko txapelketaren kontsolazio finala.
18:00etan Areto futboleko txapelketaren finala.

>> Garilak 24, domeka. Euskal preso eta iheslarien eguna

20:00etan Kontzentrazioa, plazan.
22:00etan Afaria, Sarasate plazan.

>> Garilak 25, astelehena. Okupazioaren aldeko eguna

22:00etan Afaria.
23:30ean Kontzertua: Unnamables. Errromeria: Eingo alde deu?

Oporretan gaude

Garilaren 29tik Agorrilaren 29ra. Bidali zure gutunak 27a baino lehen.

guaixe.eus

Opor bikainak

astekoa

Xabier Reparaz Extramiana

Udako gauetan egotera bikaina. Belar lehorra eta txuletilla erreen usaina nahasten dira airean. Eztarria freskatzeko garagardoa eskuan dugula, lasaitasuna eta patxada. Oporraldietarako urruneko hondartza haiek aukeratu zituztenak han ibiliko dira bizkar erre gorritu eta eltxoengandik ihesi ezin egonean. Arratseko eguzkiak Beriaingo malkor zuriak gorritzen dituen bitartean, ilargi beteak irteten du maldaren atzetik. Beti dago norbait, soinean jertse bat behar duena eta gure gauen freskotasunaz kexu dena. Mediterraneo aldean dabiltzanek zer ez lukete emango freskotasun horregatik, gauez lo egiten uzten ez dien bero heze haren aldean. Aire egokituaz eztarria izorratu arte hoztu ondoren gogoratuko dira Aralar gainetik jaisten den haize finaz.

Konformatzen ez dena, ez duelako nahi. Beharrak eta kutixiak, bakoitzak ematen dien maila dute gure lehentasunetan. Itsasoa behar duenak, marmoken ziztada bera ere pasako luke hankak hondarretan sartuta olatuak sentitzen dituen bitartean. Mendi gainetan bere burua ikusi beharra duenari, aldapak eta minek ez diote bere helburutik aldenduko. Oporrak lanean pasako dituenik ere bada, oporrik ez duelako edo egur loteak eta baratzak prestatzen urteko estresak eta laneko errietak ahazteko hartzen dituelako. Gustuko aldapan nekerik ez. Bakoitza gustura den tokian eta konpainian, zoriontsu izateko ez du besterik behar. Oporretan ongi pasatu eta disfrutatu!

hara zer diren

Kontzientzia sortzen

Gure zonaldean ohikoa da udaletxeek herritarrei auzateak, zilarreko tazak, barkilloak eta horrelakoak ospakizunetan eskaintzea. Horrelako gertaerak momentu atseginak izaten dira, denbora librea eta ospakizunekin erlazionatuak daudenak.

Gertakizun hauetan prebentzio prometatik garrantzi handia ematen diogun xehetasun bat ere badago: ardoa edo beste edari alkoholdunak eskaintzen diren ospakizunetan alkoholik gabeko edariren bat ere eskaintzea, hainzuzen ere. Urteak dira udalei proposamen hau luzatu geniela eta luzatzen jarraitzen dugula. Eta badira ere proposamen hau kontutan hartu eta mostoa, ura edo freskagarriak ere eskaintzen duten udalak. Zonaldeko udal gehienak direla esan genezake, eta eskertzeko jarrera dela uste dugu. Bide batez, hemendik animatzen dugu hala egiten ez duen udalak egitera.

Eskertzen den ekimena da hau, guri behintzat horrela jakinarazi digu jende askok, eta horretaz gain, ekimen honekin beste helburu batzuk bultzatzen dira:

· Beste aukera bat ematearena, alkohola nahi ez duen edo edan ezin duen pertsonentzat. Beste erara pertsona hauek festatik kanpo geratzen baitira moduren batean.

· Erakunde bezala ere eredu izan behar delako, gaztetxoengan batez ere, ikusle egoten direnak, dibertsio momentuak bakarrik alkoholarekin lotuta daudela barneratu ez dezaten. Beste modu, aukera eta errealitate batzuk ere badaudela ikus dezaten.

Bestalde, gure udalek drogamenpekotasunen prebentzioaren aldeko apustua egiten ari dira. Beraz, ospakizunetan alkoholdun edariak soilik eskaintzea ez litzateke oso koherentea izango. Beraz, alkoholik gabeko edariei ere bere tokia eta presentzia ematea, koherentziarekin jokatzeko beste modu bat da.

Honen guztiaren helburua ez da alkoholaren kontrako kanpaina bat bideratzea. Ekimen honekin ez dugu uste mozkorraldiekin bukatuko denik ere. Aukera ezberdinak bultzatu eta alkoholaren normalkuntzarekin bukatu nahi da, besteak beste, ez duelako jende guztiak edaten. Aprobetxatuko dugu, gehiengoak alkoholaren erabilera arduratsua egiten duela esateko.

Xehetasun batekin bukatuko dugu. "Alkohola da arazo gehien sortzen duen droga, hain zuzen ere, gehien kontsumitzen den droga delako".

Sakanako Prebentzio Programak

barrutik kanpora

Sakantzen birpentsatu?

Sakantzen Sareak zein etorkizun izan behar duen pentsatzeko unea iritsi dela uste dugu. Zer egin Sakantzenekin? Birformulatu, berrindartu, erreleboa bilatu, itxi? Lau urtetako ibilbidea oparoa gure bailaran eraiki den garapen estrategiaren paraleloa izan da. 2012ko ekainean sortu zen norbanako anitzaz osoturiko sare horizontal gisa. Helburua, enpleguari begira batez ere, egitasmo berriak sustatuko zituen ekintzailetza kolektiborako plataforma izatea zen, hau da, pertsonen gogoak eta esperientziak ehundu, jarduera ekonomiko berriak sortzeko edo kitzikatzeko.

Era desinteresatuan hamaika lagunek hainbat egitasmo bultzatu dituzte. Horien artean, garapen esperientzia arrakastatsuak ezagutarazteko jardunaldiak; lanerako sei topaketa irekiak, non ekintzaileen esperientzia ugari ezagutu ahal izan dugun eta egitasmoetarako eta harremanetarako aukerak ireki diren; lau enpresa-proiektu; udako ikastaroak hainbat urtetan; Sakana herri gehienetan aldibereko ideia burrunba; aholkularitza zerbitzuak; garatu gabe geratu diren hainbat ideia –Sakanako Ezagutzaren Gizarte-Funtsa, inkubadura kooperatiboa…–; Sakana 2020 Plan Estrategikoa dinamizatu zuen Sak-In Kontsulting kooperatiba; Behatoki Sozioekonomikoan eta Utzuganen beste eragile batzuekin –Sakanako Garapen Agentzia, Cederna-Garalur, AES, Enneco, Mankomunitatea…– izandako elkarlana, besteak beste. Harro egoteko moduko ibilbidea.

Lan hau guztia boluntarioen esfortzuaren bidez egin da. Sakantzen Sareak ez du inoiz egitura egonkorrik izan. Deitzen genituen bilera irekietara hurbiltzen ginenon artean egin dugu. Eta funtzionatzeko molde honek, egin genitzaken akatsei gehituta, etapa bat agortu egin du. Urte bete igaro dugu lozorroan, nekeak eraginda eta pertsona batzuek beste zeregin batzuetan zentratu behar izan direlako.

Egoera hau luzaroan ez mantentzearren, Sare honen etorkizuna hausnartzeko tarte bat irekitzea erabaki dugu. Horretan laguntzeko zuen iritzia bidaltzera animatzen zaituztegu, sakantzensarea@gmail.com helbidera. Komentatu iezaguzue nolakoa iruditu zaizuen ibilbidea, zuen ustez zein akats izan ditugun eta nola hobetu dezakegun, Sakantzen-ek aurrera jarraitu behar duen edo amaitu behar duen… Bihotzez eskertuko dugu zuen iritzia. Irailaren amaieran edo urriaren hasieran batzar irekia ospatuko dugu, eta bertan erabakiko dugu zer egin, bertan ikusiko dugu ea arnas berria emango dion pertsona taldea badagoen ala ez. Eskerrik asko.

Sakantzen Sarea

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Garbiñe Navarro Rodríguez • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
ZUZENTZAILEA: Miren Alonso
ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saileurrordetza

ETXARRIN BAKE EPAILEA: Etxarri Aranazko Bake Epaitegiko epaile titularra Julian Montori Galarreta da. Hala izendatu zuen udalak garagarrilaren 21ean.

sakanerria >>

SAKANA

2016 bidea Sakanara iritsiko da

Igandean Zegama-Altsasu ibilbidea eginen da eta garilaren 31n Altsasu-Ataun. Izena ematea zabalik dago www.dantzalekusakana.com eta www.dss2016.eu web guneetan

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua ekimenaren barruan 2016 bidea ekitaldia prestatu dute. Euskal gizarteak berezkoak dituen mendizaletasunak eta kultur-zaletasunak bat egiten dute proiektu horretan. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldea 32 etapatan zeharkatuko dituen ibilbidea da 2016 bidea. Hiria eta mendia tartekatuz, natur eta arte balio esanguratsua duten tokietatik igaroko da, eta tartean bi etapa Sakanatik pasako dira: 18. etapa, Otzaurten (Zegama) hasi eta Altsasun despedituko dena (igandean, garilaren 24an) eta 19. etapa, Altsasun hasi eta Ataunen despedituko dena (garilak 31, hurrengo igandean).

2016 bidea martxoaren 27an hasi zen eta lastailaren 30ean despedituko da. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Club Vasco de Camping Elkarteak dira eragileak, eta etapa bakoitzean tokian tokiko kirol eta kultur taldeen laguntza dute, eurekin komunean lan eginez. Proiektu horren ondare gisa DSS2016EU GR Sarea sortuko da. Sare horrek Gipuzkoako 7 GR nagusiak lotuko ditu eta Natur Gune Babestu guztietan oinez egiteko aukera ematen du, jakina, ondare kulturala aberastuz.

Sakana ukitzen dituen bi etapak antolatzeko, lehenik eta behin Altsasuko Inauterien Batzordeko Jose Javier Agirrebengoarekin jarri ziren harremanetan Donostia 2016koak. Haren bidez, Dantzaleku Sakana klubeko mendi sekzioa ere sartu zen laguntzaile lanetan. "2016 bideko antolatzailea Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua da. Gu, Altsasuko Inauterien Batzordea eta Dantzaleku Sakana, laguntzaileak gara" zehaztu du Dantzalekuko Peio Bergarak. Dantzaleku Sakanak 18. etapan lagunduko du eta Altsasuko Inauterien Batzordeak 19. etapan.

Ibilbideetan aritzera animatu dituzte sakandarrak

Ibilbide bakoitzean jarduera kulturak eskainiko dira, ingurune bakoitzeko txoko, istorio eta toki berezienak ezagutzera emateko. Igandeko Zegama-Altsasu etapan Intujai antzerki konpainiak 5 antzezlan egingo ditu guztira, ibilbideko altxorrak ezagutarazteko. Eta Altsasu-Ataun etapan Altsasuko Inauteri Batzordeak Altsasuko inauteria antzeztuko du. Aipatu bi ibilbideetan izena ematera animatu dituzte sakandarrak. "Erritmo suabean joango gara, mendian gozatuz eta txokoak ezagutzeko geldialdiak eginez. Gure ingurunea ezagutzera animatzen ditugu sakandarrak, gure ohiturak eta txoko politak ezagutu ditzaten" gaineratu du Bergarak.

Izena ematea eta autobusa

Izena ematea www.dantzalekusakana.org edo www.dss2016.eu web guneetan egin behar da, ibilbide bezperara arte. 8 euro ordaindu behar dira eta kopuru horrekin autobusa, asegurua eta ibilbideko kultur ekitaldiak ordaintzen dira. Bazkaria norberak eraman beharko du.

Sakanan barrena zaletasunak asetzen.

Antolakuntzak autobus zerbitzua jarriko du. Igandean bi autobus Donostiatik etorriko dira, baina sakandarrendako beste autobus bat prestatu dute. Goizeko 8:30ean abiatuko da, Altsasuko Autobus Geltokitik, mendizaleak Otzaurtera eramateko. Eta garilaren 31n, sakandarrek ez dute goizean autobusa hartu behar izango, Altsasutik aterako baita. Baina itzulerarako, aldiz, bai. Ataungo San Gregorio auzotik egingo dute itzulera autobusek eta horietako batek Altsasun egingo du geldialdia 18:20ean, ibilbidean parte hartu duten sakandarrak bueltatzeko.

dss2016.eu

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren web gunea. 2016 bideko eta gainontzeko ekitaldietako informazio guztia.

18. etapa: Zegama (Otzaurte)-Altsasu (barre algaren mendia)

Zailtasuna: Ertaina. Igandean (garilak 24). Luzera: 17,3 km

Otzaurteko bentatik 9:00etan aterako dira. Mendiclownzaleak taldearen lehenengo emanaldia izango da. GR-tik miradorera pasa eta Usuaranetik Etxegaratera helduko dira. Mendiclownzaleak taldearen 2. emanaldia izanen da han. Ondoren Balankalekuko trikuharrira igoko dira, Salsamendira, eta Mendiclownzaleak taldeak inguruari buruzko azalpenak emanen ditu. Harrobi zaharrera jaitsiko dira segituan, eta Ulaiar gurutzatu ondoren Ponderosako pinuditik Dantzalekuko askaldegira iritsiko dira eta hortik plazara, 16:45 inguruan. Ibilbide guztian barna, aurrean, erdialdean eta atzean, Dantzaleku Sakana klubeko kideak gida lanetan ariko dira, inor ez galtzeko. "Hainbat azalpen emango dituzte: uren banatzailea, mikeleteak, Altzaniako mendizerra… gure ingurunea ezagutzeko primerako aukera izango da" adierazi du Peio Bergarak.

Pintxo potea

Plazan pintxo potea antolatu dute Dantzaleku Sakanakoek. Euren ohiko laguntzaileei esker, Amaia okindegiko ogiarekin Katealde pateak, gaztak eta ardoa dastatzeko aukera izango da. Pintxo pote bakoitzak 2 euro balioko ditu eta ateratako dirua Altsasuko Inauteri Batzordearendako izango da.

19. etapa: Altsasu-Ataun (mendian barna)

Zailtasuna: Txikia. Garilaren 31n (igandearekin). Luzera: 12,5 km

Dantzalekun 9:00etan jarri dute hitzordua. Txalapartarekin harrera egin ondoren, San Joan baleontzia eraikitzeko egurrezko piezak lantzeari buruzko erakusketa eta erakustaldia izanen da bertan, Albaolaren eskutik. Ibilbidea hasi eta San Pedrotik pasa ondoren, Intxusburura igo eta bertako trikuharrian Jose Migel Barandiaran eta haren laguntzaileei buruzko antzerkia ikusteko aukera izanen da, indusketa lanak antzeztuz. Ondoren, Bernoako galtzadatik Irumugetatik pasa eta Zelatamunora iritsi (Etxarri Aranatzen) eta han, mendian, Altsasuko inauterien antzezpena eginen du Altsasuko Inauterien Konpartsak.

Lizarrustiko parketxerako bideari heldu eta 14:30ak aldera iritsiko dira. Han musika emanaldia izanen da eta bazkaldu ondoren Gemma Arrugaeta argazkilari ezagunak prestatutako argazki-erakusketaz gozatzeko aukera izanen da Lizarrustiko basoan. Segidan, Lazkaora jaitsiko dira mendizaleak, autobusez. Jose Migel Barandiaranen bizitzari eta obrari buruzko ikusentzunezkoa ikusteko aukera izango dute Barandiaran museoan eta, despeditzeko, Errotatxo errota eta San Gregorio bisitatuko dituzte. Ataungo mendi taldea arduratuko da mendi ibilbidea gidatzeaz.

» Etxarri Aranatz

Laboral Kutxak euskara lehenetsiko du

Aldeek diotenez, kalitatearen osagai funtsezkoa da bezeroak harremanetarako hizkuntza hautatu ahal izatea

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMAk, Laboral Kutxak, Kutxabankek, eta 30 udalerri euskaldunetako alkateek finantza alorrean euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena sinatu zuten asteartean. Bi finantza entitateek UEMAren irizpideekin bat egin, eta herri horietan dituzten bulegoetan euskara lehenetsiko dute. Etxarri Aranazko kasuan akordioa Josu Labakak (UEMAko lehendakaria), Marije Etxanizek (Laboral Kutxako Komunikazio eta Publizitate Departamentuko Zuzendaria) eta Aitor Karasatorre Mugurutzak (zinegotzia) sinatu zuten, bost urterako.

Aldeek aitortu dute, batetik, kalitatearen osagai funtsezkoa dela bezeroak harremanetarako hizkuntza hautatu ahal izatea. Bestetik, bi hizkuntza ofizialen artean desorekan dagoen hizkuntza ahula dela euskara eta, beraz, hau bultzatzeko neurriak hartzen dituztela, "euskara zabaldu eta sendotzeko asmoz", "bezeroek euskaraz ahoz eta idatzi jarduteko duten eskubidea modu argi eta garbian" aitortuz.

Akordioan jaso dutenez, elkarren arteko harremanak, ahozkoak eta idatzizkoak, euskaraz izango dira. Horretarako, beharrezko diren baliabideak jarriko dituzte. Etxarriko kasuan Laboral Kutxak bezeroekin dituzten harremanetan euskararen presentzia bermatuko du. Horretarako, hainbat neurri hartuko dituzte. Batetik, langileak lan mota guztietan euskaraz jarduteko gai izanen dira; horretarako, etengabeko trebakuntza eta laguntzarako tresna informatikoak izanen dituzte. Bestetik, langile elebidunak izanen dira bulegoan.

Aldi berean, bezeroari ahoz lehen hitza euskaraz eginen diote eta e-postako informazioa euskaraz edo elebietan bidaliko zaio, azken kasuan euskarari lehentasuna emanez. Produktu berri bat kontratatzera datorren bezeroari eskaintza euskaraz eginen diete eta dokumentuak euskaraz edo elebitan izanen dira. Bezeroendako zordunketa eta kreditu txartelak, nahiz bestelako txartel guztiak, euskaraz sortuko dira, kontrakoa eskatzen dutenei izan ezik. Urtean zehar ematen diren zerbitzu bereziak –errenta aitorpenaren kanpaina, esaterako– euskaraz izan daitezen, beharrezkoak diren baliabideak jarriko dituzte langileen zein herritarren eskura.

Bestetik, bi finantza erakundeek, kanpainen bidez, haien zerbitzuak euskaraz erabiltzeko deia eginen diete bezeroei urtero. Kutxazainen pantailetan azaltzen den sarrerako mezu sorta euskaraz izanen da. Aldi berean, bulegoko kartelen %75 gutxienez euskaraz jarriko dira, bai barrura eta bai kanpoaldera begira. Bulegoek bestelako argitalpenetan egiten duten publizitatea euskaraz jarriko da, Esku orriak elebitan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.

UEMA eta Laboral Kutxaren arteko hitzarmenaren sinadura.

» Egiarreta

Egiarreta ikuspegia hegoaldetik.

Lurrikararen epizentroa

Zarata handia. Hori entzun zuten egiarretarrek joan den ostegunean, 23:31ean. Lurrikara baten ondorioa izan zen zarata. Epizentroa herriaren iparraldean izan zuen. Irurtzunen eta Ekain ere sentitu zuten lurraren astindua. Egiarretan badakite zer diren lurrikarak, epizentro gehien hartu duen ibarreko herria baita. 2002koetan etxe barruan mugimendua nabaritu zuten eta zartadurak izan ziren. Sakanan lurrikarak sentitu zituzten azkenak unanuarrak eta dorrabarrak izan ziren, 2013ko martxoan eta apirilean. Mugimendu haiek Erreniega mendiaren inguruan, Utergan eta Etxaurin, zuten epizentroa.

Sakanako azken lurrikarak

Data	Mag.	Kokapena
1982-03-11	3.8	Uharte Arakil HE
1982-03-30	3.3	Arruazu I
1982-03-30	3.4	Egiarreta HM
1982-03-30	3.0	Egiarreta IE
1982-04-12	3.3	Irañeta IE
1982-04-12	3.0	Irurtzun H
1982-05-15	3.3	Irurtzun HM
1982-05-29	3.4	Irañeta I
1982-06-23	3.1	Egiarreta H
1982-12-31	3.5	Uharte Arakil I
1982-12-31	2.8	Irañeta HE
1993-01-26	3.5	Bakaiku IE
1998-10-27	5.2	Lizarraga HE
2001-06-02	2.9	Irurtzun HE
2001-06-02	2.4	Irurtzun H
2002-02-21	3.8	Egiarreta M
2002-02-22	2.4	IIEgiarreta M
2002-02-27	2.8	Egiarreta IM
2002-02-27	2.1	Egiarreta M
2002-02-27	2.7	Egiarreta IM
2002-02-27	2.3	Irañeta IM
2002-02-27	2.2	Egiarreta IM
2002-03-03	1.5	Egiarreta I
2002-03-04	1.2	Irañeta IE
2002-03-08	1.6	Egiarreta IM
2002-03-18	3.3	IIrurtzun HE
2002-05-02	2.7	Irañeta IE
2007-07-22	1.0	Egiarreta NM
2007-07-31	2.7	Egiarreta IM
2016-07-14	2,9	Egiarreta I

I: iparra; **E**: ekialdea; **H**: hegoaldea eta **M**: mendebaldea.
Iturria: Instituto Geográfico Nacional

» Lakuntza

Gazteendako ur festa goxoa

Ostegunean, 21:00etan Lakuntzako igerilekuan

Gozamenez programaren barruan Lakuntzako udal igerilekuek Ur Festa Goxoa hartuko dute. Gazteei ongi etorria eginen zaie, gozoekin eta jolasekin. Gauez uretan ibiltzeko aukera izanen dute. Gose direnek ogitartekoa eta freskagarria afaltzeko aukera izanen dute. Gainera, txokolatezko iturria ere izanen dute. Eta agurtu aurretik argi kriseiluak zeruan gora askatuko dituzte.

Sakanako bost igerilekuetan garatuko da uda honetan programa. Haren bidez gazte sakandarrei sexualitatea ikuspegi positibotik, adeitsutik, pluraletik eta aberasgarritik eskaini nahi zaie. Gozamenez programak 15 urte daramatza. Sexualitatearen hainbat alderdiri buruzko hausnarketa eta eztabaida sustatu nahi du gazteen artean nahiz gazteen eta haien bitartekarien artean (familia, ikastetxea, komunikabideak...). Ekintza ludikoen bidez gorputzak eta zentzumenak plazer iturri eta komunikazio bide direla ohartarazi nahi zaie.

Festaz blai giro ederran.

» Altsasu

Larreen aprobetxamendurako deialdia

Larreak

Eremua	Zuhaitzak m²	Sasiak m²	Larreak m²	Guztira m²	Prezioa euro/urtea	Guztira m²	Prezioa euro/urtea
Kaskardia	0	0	4.506,06	4.506,06	35,60		
Kaskardia	0	0	4.788,72	4.788,72	37,83		
Kaskardia	0	0	4.686,47	4.686,47	37,02	13.981,25	110,45
Dermau	1.338,4	0	3.380,30	4.718,70	28,85	4.718,7	28,85
Axarizuloeta	3.964,95	0	2.160,28	6.125,23	23,41	14.989,64	37,59
Axarozuloeta	8.864,41	0	0	8.864,41	14,18		
Larrezabal	4.265,44	0	12.877,71	17.143,15	108,56	17.143,15	108,56

Altsasuko Udalak herri lurretako 2016-2023 eperako larreen aprobetxamendurako deialdia egin du. Larren aprobetxamenduan interesa duten familia unitateek, bihartik hasita 15 eguneko epea dute udaletxean eskaerak aurkezteko.

» Urdiain

Bentarendako aldamiozko jantzia

Urdiaingo benta aldamioz inguratuta dago garagarrila akaberaz geroztik. Udaletik jakinarazi digutenez, teilatu guztia berritzeko asmoa dute. Itajurak barruko paretetan kalteak sortzen ari dira eta horiek saihesteko eta eraikina gehiago ez hondatzeko lanean ari dira. Teilatuan berritu beharreko latak eta soliboak berritu, teilapeko isolatzailea jarri eta teilak jarriko dira. Opatutakoaren arabera beharrezko konponketak egiten ari direnez, lanetarako aurrekontu irekia du udalak.

Bestalde, udalak Iturtxuloko haurrendako jolas parkea festen aurretik kendu egin zuen, berri bategatik ordezkatzeko. Enpresa batek jolas parke berria aurki jarriko du.

» Arakil

Arakilgo eguna astelehenean

Itsasperri ermitaren inguruan, eguerdian, eta Ihabarren ospatuko da festa

Santiago egunarekin, astelehenean, arakildarrek euren eguna ospatuko dute, Arakilgo eguna. Itsasperri Santiago ermitaren inguruko zelaia ibarreko 12 herrietako arakildarren topagunea izanen da beste behin. Egiarretatik erraldoien konpartsarekin kalejiran hurbilduko dira. Zelaian azoka, musika, haurrendako tailerrak eta beste izanen dira. Eguerdiko elizkizunaren ondoren, urtero moduan, Arakilgo Udalaren omenaldien txanda iritsiko da. Festa Ihabarrera lekualdatu aurretik otamena izanen da.

Dantzari eta erraldoiak eliz atean ekitaldiaren hasieraren zai.

Herri bazkarirako 180 pertsonek eman dute izena.

Ospakizunak egungo formatuarekin 13. aldia du. Horrek esan nahi du Itsasperriko ospakizunen ondoren ibarreko herri guztietan izan dela festa eta, dagoeneko, Ihabardik "bigarren itzulia" hasi duela. +www.guaixe.eus

Egitaraua

Itxasperrin
11:00etan Erromeria Uharteko erraldoiekin Itsasperrira.
11:30ean Txikiendako eskulan tailerra.
12:00etan Meza Itsasperrin, Arakilgo abesbatzarekin.
12:45ean Udalaren omenaldiak.
13:00etan Otamena zelaian.
Goizean zehar feria, trikitilariak...

Ihabarren
14:30ean Kanpaia-errepika.
14:30ean Argazki zaharren erakusketa.
15:00etan Herri bazkaria.
16:30ean Bazkalostea Bizkairekin.
17:30ean Mus, briska eta partxis txapelketak.
17:30ean Puzgarriak eta haurrendako jolasak.
17:30ean Bizkairekin dantzaldia.
19:00etan Batukada taldearen emanaldia.
20:00etan Sari banaketa.
20:30ean Barrikote afaria.
20:30ean Kontzertua: Hamaika Aldiz.

SAKANA

Eskalada, LHko eskaintza berria

Ikasleak Lanbide Heziketako Institutora sartzen.

Sakana Lanbide Heziketa (LH) institutuak 2014az geroztik mendi ertaineko kirol-teknikaria zikloko ikasketak eskaintzen ditu. Bi ikasturteko ikasketa da. Institututik jakinarazi digutenez, heldu den ikasturtean eskaintza horri eskaladarena gehituko zaio. Horretan interesa dutenek mendi ertaineko kirol-teknikaria zikloko lehen ikasturtea egin beharko dute eta bigarren ikasturtean mendi ertaineko edo eskaladako kirol-teknikari ikasketak aukeratu beharko dituzte. Ikasketa horietan interesa dutenek sarbide proba pasa beharko dute. Horretarako izen ematea irailaren 1etik 6ra izanen da zabalik.

Aurreko ikasturtean Sakana institutuan Merkataritza Zerbitzuetako Oinarrizko Lanbide Heziketa ikasketak ematen hasi ziren. Eskaintza gradu ertaineko soldadura eta galdaragintza eta mantenu elektromekanika eta goi graduko industria-mekatronika (lehengo industria mantenua) ikasketek osatzen dute.

SAKANA

Ume eta haurrak aingeruaren zaintzapean

60 bat haur egin ziren Aralarko aingeruaren lagun.

Ezohiko elizkizuna zela salatzen zuten aldian behingo negarrek eta batean eta bestean zeuden umeen gurdiak. Aralarko santutegia goraino bete zen, igandekoa haurrak Aralarko aingeruari aurkezteko eguna baitzen. Txikitatik santutegiarekiko lotura sustatu eta Aralarko aingeruak umeak zain ditzala eskatzeko eguna izan zen. Hori baita Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiaren asmoa ekitaldia antolatzerakoan.

Mikel Gartziandiak eman zuen meza eta, akaberan, txikiak aldare aurrera hurbildu ziren. Hainbat guraso edo aiton-amonen besoetan, haien eskutik beste asko. Aurrenekoz aingeruaren irudia gurtu zuten *Mikel gurea* kantua entzuten zen bitartean. Txikien txandaren ondoren santutegia bete zuten gainontzeko fededunak izan ziren gurtza egin zutenak. Izena aldez aurretik eman zuten 20 bat umeek igandean bertan jaso zuten aingeruaren lagun direla ziurtatzen duen pergaminoa. Elizkizunera zuzenean joan zirenek, txartela bete eta aste bat edo bi aste barru izanen dute pergaminoa santutegian eskura. Dagoeneko, milatik gora dira aingeruaren lagun txikiak. Hala egin nahi duenak heldu den urteko garilaren 23ra itxaron beharko du.

» Irurtzun

Sexu erasoei, esku gorria!

Barazki gunetik Irurtzunera sexu erasoen kontrako mezuak zabaldu dira. Irurtzungo emakumeen taldeak ohikoak diren bost sexu eraso moten inguruan esku-orria zabaldu du etxeetara festen aurretik. Bost eraso mota horien kontrako mezuak dituzten pankartak larunbatean egin zituzten eta festetan herrian barna ikusgai izanen dira.

Sexu erasoak ekiditeko kanpainaren barruan gazteekin larunbatean egindako tailerrean sortu zituzten pankartak. Horren aurretik, erasoak ekiditeko tailerrean parte hartu zuten 23 neska-mutil gaztek. Tailerrean erasoa zer den eta dauden eraso motak aztertu zituzten. Sexu erasoak nola identifikatu aztertu zuten eta, horrekin batera, halako egoeren aurrean zein nolako erantzunak eman daitezkeen aztertu zuten. Tailerra oso dinamikoa izan zen, gazteek parte hartze handia izan zutelako. Haien ideiak eta esperientziak partekatu eta guztien arteko hausnarketa egin zen.

Irurtzungo emakume taldeak eta Irurtzun aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatu zuten tailerra, udalaren laguntzarekin. Mankomunitatetik kanpainaren "oso balorazio ona" egin dute; "batez ere parte-hartzailea izan delako. Emakume taldeak lan handia egin du denbora gutxian, asko baloratu eta eskertzen dugu". Mankomunitatetik, aldi berean, esker ona azaldu diote Irurtzun Telebistari, saioaren inguruko bideoa grabatu eta www.irurtzuneuskaraz.com web orrian dago ikusgai.

Festetan burututako sexu erasoen kontrako kanpainaren ekintzetako batean parte-hartzen.

» Irurtzun

Euripean egin zen zen Irurtzungo txupina. Aterpean festarako tokia bazegoen.

Baita ere, musikaz gozatzeko.

» Iturmendi

Ohiko iturria apar festa bikaina bilakatuta Iturmendiko festetan.

» Uharte Arakil

Agiriko despopulatura bueltan

Eliza zeneko zorua egokitu eta paretak finkatu asmoz ariko dira

Hainbat arrazoiren ondorioz bi urtez lanak geldi egon ondoren, aurten, berriro ere, Agiriko (Agiregi) despopulatua agerrarazteko lanean ariko dira. 2012an eta 2013an egindako lanek despopulatuko eliza agerian utzi zuten. Pedro Arrese Villanuevak Zizur Nagusiko institutuan historia irakasle eta Ezpilleta elkarteko kide denak hilabete emanen du han.

Berak esan digunez, aurtengo asmoa da "elizaren inguruak txukuntzea. Elizako paretetako harri asko barrura erori ziren eta ideia egiteko haiek ingurura atera genituen". Horrekin batera, Arresek beste asmo bat aurreratu digu: "harri horiekin elizako zorua ongi jarri nahi dugu, polit jarri nahi dugu. Gainera, paretak finkatu nahi ditugu." Azken asmoa bisitariendako guztia txukun uztea dela jakinarazi digu.

Eliza eta herria

Agiriko elizak 13 metro luze eta 6 metro zabal ditu. Pareta zabalak dira gelditzen dena. Iparraldeko pareta da finkatzen lan gehien behar duena, barrura "puztuta" baitago. Elizak atea hegoalderantz du, ibarreko elizen moduan (Lakuntza salbu). Egindako lanek erliebedun harriak (ateko kapitelak?) eta alaka zuzen eta borobilduko harriak agerian utzi zituzten. Elizaren hormaren luzeran harrizko banku bat izan daitekeena ere agerrarazi zuten. Elizatea hilerria izan zenaren gainean eraiki zuten, antza. Elizaren, eta herriko etxeetako teilatua begetala zen, "ziurrenik zekalez egina".

Agiriko indusketan aurkitutako harriak.

Arresek esan digunez, herria dena ez dute ukituko, "arkeologia-indusketa eskatzen duelako". 13 etxez osatutako herria zen Agiri. Haietako bat ikertu zuen Arresek; 105 metro karratuko azalera eta 90 cm-ko zabalerako paretak ditu. Pareten altura ez da metro batera iristen. Atea, hegoaldean, non egon daitekeen susmoa du. Iltzeak eta zeramika zatiak opatu zituen.

Boluntarioak

Agiriko indusketan borondatez lan egin nahi dutenek Arreseri hots egin beharko diote, 697 649 425 telefonora.

SAKANA

Urbasan autoetan lapurretak egiteagatik atxilotuta

Ubaban edo Iturriotzen autoak aparkatu eta Urbasaz gozatzera joandako pertsonen autoetan lapurretak egiten zituzten: balioko objektuak, boltsoak, dokumentazioa, motxilak, dirua, telefonoak edo argazki kamerak. Horretarako, autoko leihoa hausten zuten. Makina bat salaketa jaso dituzte horregatik poliziek. Foruzaingoak ere autoan balioko ezer ez uzteko gaztigatu zuen ere.

Lapurretekin bukatzeko zaintza berezia martxan jarri zuten eta bildutako informazioan oinarrituta Lizarrako kanping baten ondoan auto bat gelditu eta Foruzaingoak hiru gizon gipuzkoar atxilotu zituen. Hiruei lapurretan aritzeko tresneria atzeman zien. Urbasan eta Lizarraldeko turismo eta aisialdi guneetan egiten omen zituzten lapurretak. Foruzaingoak jakinarazi duenez, taldea ongi antolatuta zegoen: batek, prismatikoen laguntzaz, ingurua zaintzen zuen; bigarrenak hirugarrena babestu eta defendatzen zuen eta, azken horrek, leihoak hautsi eta lapurtzen zuen. Harrapatuak izanez gero, piper-hauts spraya zuten.

Auto lapurretan aritzen zirenei atzemandakoa. FORUZAINGOA.

SAKANA

Gizarte-larrialdi laguntza-prometarako 61.700 euro

Sakanako hiru gizarte zerbitzuen mankomunitateek Nafarroako Gobernuarengandik gizarte larrialdi prometarako diru-laguntzak jaso dituzte. Guztira 61.714,73 euro. Laguntza horren bidez gabezi ekonomikoak edo sozio-sanitarioak dituzten pertsonek izan ditzaketen oinarrizko beharrak premiaz eta berehala estaltzeko modua izanen dute. Ostatu, energia, elikadura, osasuna eta hezkuntza arloan sakandarrek izan ditzaketen gabeziak estaliko dituzte gizarte zerbitzuen mankomunitateek larrialdi-programen bidez.

Mankomunitateendako diru-laguntza	
Irurtzun aldekoa	18.364,73
Etxarri Aranatz aldekoa	12.350
Burunda mendebaldekoa	31.000
Guztira	**61.714,73**

Kalean solasean.

SAKANA

Ollo eta Uriarte hitzarmena sinatzen.

EITBko seinalea, bidean

Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoak EITB Nafarroan hartzeko hitzarmena sinatu dute

"Nafarroako Gobernuak arlo teknikoan eta administratiboan bere lanak eginak ditu. Industria, Energia eta Turismo Ministerioari espektro irrati-elektrikoan espazio-erabilera zabaldu ahal izatea eskatu diogu. Erantzunaren zain gaude. Baina ministerioan lastailaz geroztik ez dago inor. Ez dugu norekin hitz egin". Nafarroako Gobernutik eman dizkiguten azalpenak dira horiek.

Foru administraziotik jakinarazi digutenez, Nasertic enpresa publikoaren bidez proba teknikoak egin dituzte eta Nafarroako Gobernuaren nahia betetzea posible da: gaur egun lau telebista kate emititzen duten tokitik seik zabaltzea. "Jartzeko prest dago. Telebisten seinalea multiplexatu, konprimitu, eta emititzean ez da arazorik izan. Baimena besterik ez da falta".

Gobernutik ere gaur egun emititzen duten telebista nafarrendako onura dela aipatu digute: "gaur egun multiplexa erabiltzen dutenen artean pagatu behar dute. EITB sartzen bada, hark ere pagatu beharko du eta gainontzekoek, ondorioz gutxiago pagatu beharko dute". Nafarroatik proposatzen den konponbidea estatuko legedian jasoa dago. Ministerioaren baimena jasoz gero, estatuan aukera hori baliatzen den aurreneko aldia izanen da. Erantzuna azkar eman dezake. Baina luzatzea ere aukera da. Bigarren multiplex bat eskatzea garestiagoa litzateke eta inork nahi ez duen konponbidea da. "Gainera, espazio erradioelektrikoaren zati gero eta handiagoa telefoniari eskaintzen zaio".

AKORDIOA

Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburu Cristina Uriartek EiTB Nafarroan hedatzeko hitzarmena sinatu zuten Iruñean ostiralean. Haren bidez, Lurreko Telebista Digital bidez EITB jasotzeko aukera bermatu nahi da.

+www.guaixe.eus

» Uharte Arakil

Udala memoria historikoaren, berreskuratze, birgaitze eta errekonozimenduaren alde

1936ean ezarri zen diktadura ekarri zuten ekintzak abiapuntu gisa hartuz horretarako konpromisoa hartu du. Hiru eraildakoak seme kuttun izendatu ditu.

Udal bilkuran salaketa egiten.

Uharte Arakilgo Udalak 1936ko estatu kolpea salatuz eta memoria historikoa aitortuz aho batez adierazpena onartu zuen, EH Bilduren zinegotzien eta UPNko zinegotzi bakarraren (besteak urte bat darama udaletxetik agertu gabe) aldeko botoekin. Herenegun, egun seinalatuan, onartu zuen udalak mozioa. Izan ere, herenegungo egunez, duela 80 urte, Uharte Arakilgo alkate zen Silverio Astiz Lakunza atxilotu "bahitu eta familiatik urrundu zuten altxamendu faxista babestu zutenek".

Hura, haren seme Silverio Astiz Ezkurdia eta herriko nekazari sozialista zen Victor Martirena Irañeta atxilotu eta espetxeratu zituzten, 1936 lastailaren 28an erailtzeko. "Erailak izan ziren herriaren aldeko konpromisoagatik eta Frankismoaren printzipioak ez onartzeagatik, desberdin pentsatzeagatik". Hori guztia gogorarazten da Uharte Arakilgo Udalaren adierazpenean. Eta onartzen denez, estatu kolpearen ondorioz "gure herrian hainbat errepresaliatu ekarri zituen, ilea bortizki moztutako emakumeak, kanporatutako maisuak, herriko aguazilak, Uharteko batzokia... Herritar askok errepresio frankista jasan zuten".

Konpromisoa

Udalbatzak nabarmendu du 1936an eraildako hiru uharteartek "sekula" ez zutela epaiketarik izan eta, beraz, "ezin dugu esan exekutatuak izan zirenik, koldarki erailak izan zirela baizik". Uharte Arakilgo Udalak memoria historikoaren, berreskuratze, birgaitze eta errekonozimenduaren alde lan egiteko konpromisoa hartu du. Horregatik, "ahal dugun heinean, Iberon gorpuak hobitik ateratzeko egiten ari diren lanak eta identifikazio lanak babesteko konpromisoa hartzen dugu".

Uharte Arakilgo udalak 36ko lastailean eraildako hiru uharteartek seme kuttun izendatu nahi ditu hil eta geroko omenaldi gisa, "altxamendu frankistaren ondorioz bizitza galdu izana errekonozituz". Aldi berean, udalak "aipamen berezia egin nahi diogu Silverio Astiz Lakuntzari, Uharte Arakilgo alkate izan zenari, herritarrek libreki eta demokratikoki hautatu zuten eta herriaren alde lan egiteagatik, interes orokorraren alde egiteagatik ezaguna izan zen". Azkenik, udalak "frankismoaren errepresaliatuen omenez gune bat sortzeko konpromisoa hartu du".

Ekarpenak

Hiru eraildakoen familiei aipamena egin zien hasieran Ainara Aiestaran Ijurko alkateak. "Udalaren izenean eskerrak eman nahi dizkiet, inplikazioagatik, elkarlanagatik eta gauzak errazteagatik". Uharte Arakil, 80 urte memoria galtzen elkartearen lana ere nabarmendu nahi izan zuen alkateak.

Mozioa aho batez onartu bazen ere, UPNko Francisco Jose Fernandez Garciak altxamedu faxista beharrean estatu kolpea izan zela zehaztea eskatu zuen. Bestetik, aitortza bi aldeetako biktimei egitea gustatuko litzaiokeela gaineratu zuen, "ez bakarrik batekoak". Bilkura gela publikoak bete zuen eta haietako batek ere "eskolan erakusten ziguten altxamenduarena kentzeko" eskatu zuen.

Beste uhartear batek aitortzen zerrenda luzatzeko eskatu zuen. "Aipatutako alguazilak. Izan zen beste udal langile bat gerrara bando nazionalera behartuta joan behar izan zuena eta bueltatu zenean hura etengabe zirikatu zuten. Armadan izan zuen buruaren babesa eskatu behar izan zuen". Alkateak azaldu digunez, "bilketa lana egin beharra dugu. Nik uste dut horretarako uhartearrak prest daudela. Epe luzerako izanen da. Ez dut uste udazkeneko omenaldirako dena egonen denik". Memoria gunean osatuko dute horrela.

Lastailak 29

Astizdarrak eta Martirena fusilatu zituztela 80 urte bete eta hurrengo egunean ekitaldia eginen da Uharte Arakilen. Udalak eta Uharte Arakil, 80 urte memoria galtzen elkarteak elkarrekin antolatuko dute. Omenaldi horretan seme kuttun izendatzen duen dokumentua emanen die udalak familiei.

GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

Oroigarriak
egiten ditugu

gk
KOMUNIKAZIOA

948 564 275
Foru plaza, 23-1 Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK | 2 TEKNOLOGIA | 3 LANA/NEGOZIOAK | 4 LEKETARIK | 5 IBILGAILUAK | 6 HARREMANAK | 7 AISIA/KIROLA | 8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK

SALDU

Etxarri Aranatzen pisu bat salgai. 66.000 €, prezioa negoziagarria da! 84 m² erabilgarriak, berrituta eta eguzkitsua. Nire telefonoa 654 23 41 02 da.

OPATUTAKOAK/GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objetu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuenak.

GALDUTAKOAK

Opel Corsa baten giltza galdu da San Miguel inguruan. Topatu duenak dei dezala 627 139 661 edo 948 460 540 telefonoetara.

OHARRAK

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslarien aldeko abenduaren 30 ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119.

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia. Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoeuskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxauzia gaztelua esukaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965.

Volkswageneko langileendako deia. Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proeiktua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundaziotik Wolkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko dirubilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin.

Euskonwes ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazi gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com.

Festetako herri bazkaria. Garilaren 26an, asteartean izanen da. Txartelak 17 eurotan, Koxko tabernan eta Estankoan salgai daude. Erosteko azken eguna, hilaren 23a, larunbata. Menua: entsalada, iberiko karrilerak oporto saltsan, etxean egindako flana, kafea eta kopa.

Bakaikuko rock and roll bazkaria. Garilaren 24an, domekan, rock and roll in Bakaiku egunaren barruan herri bazkaria antolatu dute. Txartelak 25 eurotan Koxko eta Kontxiren dendan salgai daude, igandera arte.

Odol-emaileak. Abuztua: 1ean Arbizu 17:00-18:00, eta Uharte Arakil 19:45-20:45; 16an, 17an eta 18an Altsasun 17:00-20:30, 19an Altsasun 9:30-13:00.

Errefuxiatuendako material bilketa. Altsasuko Frontoi zeharbidearen 14an udalak duen bajeran jasoko da, astegunetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Ayuda Humanitaria Navarra en Acción, AHNAk, honakoak eskatu ditu: arropa, umeendako beharrezkoak diren arropa, jantziak, txupeteak, pixoihalak, jatekoak (gailetak, hautsa-esnea, umeendako pototxoak), haurrendako gurdiak, eskola materiala eta migratzaileendako onak izan daitezkeen bestelakoak ere.

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik.

Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioa, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalei, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoan.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen astearteetan, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gaztean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu, baina beti euskaraz.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen Ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduan egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleen garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

JAIOTZAK

- **Aleix Montecelo Casillas**, garilaren 12an Lakuntzan.

EZKONTZAK

- **Joseba Lanz Irigoien eta Lorena Senar Navarrete**, uztailaren 16an Lakuntzan.

HERIOTZAK

- **Viviana Senar Andueza**, ekainaren 22an Lizarragan.
- **Manuel Joao Cardoso Fernandes**, uztailaren 9an Altsasun.
- **Julian Mendinueta Mendinueta,** uztailaren 16an Lizarragan.
- **Martin Galarza Lizarraga**, uztailaren 16an Urdiainen.
- **Bartolome Senar Ezkerra**, uztailaren 17an Lizarragan.
- **Ramon Lizarraga Orrio**, uztailaren 19an Lizarragan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

HERRI KIROLAK

JON IRAÑETA HIRUGARRENA NAFARROAKO TXINGA TXAPELKETAN: Esku banatan 50 kiloko txingak hartuta, Migel Angel Sukuntzak irabazi zuen txapelketa –22 plaza eta 0,70 m–. Jon Irañeta irurtzundarra 3.a sailkatu zen –6 plaza eta 1,16 m)–.

kirola >>

Pilota

Bakaikoa eta Gorritiren Errekak Euskal Herriko Herrien Arteko finala jokatuko du

Azpeitia izanen du aurkari

Joanes Bakaikoa.

Nafarroako Herrien Arteko Txapelketa irabazi eta gero, Euskal Herriko Herrien Arteko Txapelketa jokatu du Doneztebeko Errekak. Bertan lehiatzen dira Joanes Bakaikoa etxarriarra eta Jon Gorriti uhartearra, besteak beste. Euskal Herrikoan Markinaren kontra 2 eta 1 irabazi eta gero, finalerako sailkatu da Erreka. Finala bihar, larunbatean jokatuko du Errekak Zarauzko Aritzbatalden, 10:30ean, Zigoitiari 3 eta 0 irabazi dion Azpeitiaren kontra.

Ezkurdia eta Zabaleta Bizkaiko 5 t´erditik kanpo

Igandean abiatu zen Bizkaiko Binakako 5 t´erdiko txapelketa, Barakaldon. Ezkurdiak eta Zabaletak bikotea osatu zuten, Altuna III.aren eta Barriolaren kontra. Azken hauek hobeto egokitu ziren distantzia txikira. Altuna III.a izan zen onena. Sakandarrak 8 eta 13 hurbildu ziren markagailuan, baina Altuna III.a eta Barriola gailendu ziren hortik aurrera eta 12 eta 22 irabazi zieten sakandarrei.

Pilota

Olaztin txapel ugari jokoan

XLV. Olaztiko San Migel Txapelketako finalak larunbatean jokatuko dira, 10:00etan, eta Sutegi-San Migel Txapelketako finalak igandean, 9:00etan

Olaztiko San Migel Pilota Txapelkeltako aurreko urteko finalistak.

Olaztiko Santa Ana festetako ospakizunen barruan toki berezia du, duela 45 urtetik, pilotak. Izan ere, aurten, XLV. Olaztiko San Migel Elkartea Pilota Txapelketako finalak hartuko ditu Olaztiko pilotalekuak festetan. 45. edizioa, ez da gutxi. Aipatu txapelketa herrikoi honetan 43 bikote lehiatu dira guztira, hiru mailatan banatuta. Afizionatuen txapelketan, aldiz, 21 bikote lehiatu dira. Hortaz, 64 bikote guztira. Final handiak larunbatean jokatuko dira, goizeko 10:00etatik aurrera.

Ongairen eta Bergeraren aukera

Afizionatuen edo nagusien mailan Alberto Ongai satrustegiarrak eta Josu Bergera arruazuarrak Olaztiko txapela janzteko aukera dute. Baina Azketa eta Atxa dituzte aurrez aurre, eta partida lehiatua aurreikusten da.

222 bikote lehiatu dira Sutegi txapelketan

Maila nagusiko Olaztiko San Migel Pilota Txapelketaren altzoan, kategoria txikiko txapelketa antolatzea bururatu zitzaien olaztiarrei duela hainbat urte. Aurtengo edizioan, 2016ko Sutegi-San Migel Pilota Txapelketan, 222 bikote lehiatu dira guztira, txikienen mailatik hasita gazteen mailaraino. Igandeko finaletan Euskal Herriko makina bat herriren ordezkaritza zabala dago. Soilik bikote sakandar bat sailkatu da finalerako, haurren 2. mailan, Arbizuko Goikoetxea eta Gorrotxategi. Atxondoko Arruabarrena eta Pello izango dituzte aurkari.

XLV. Olaztiko San Migel Pilota Txapelketako finalak

Larunbatean, 10:00etan
3.maila: Mendoza-Mendoza / Ieregi-Mundiñano
2.maila: Jabi-Pablo / Borrega-Berat
1.maila: Beunza-Iurgi / Lopez de Zubiria-Garziandia
Nagusiak: Azketa-Atxa / Ongai-Bergera

Sutegi-San Migel finalak

Igandean, 9:00etan, Olaztiko pilotalekuan
Txikiak:
Zubillaga-Nazabal (Betelu) / Salaberria-Salaberria (Goizueta)
Umeak 2:
Apaolaza-Arzelus (Ormaiztegi) / Otegi-Ormazabal (Zegama)
Umeak1:
Oderiz-Sanchez (Oberena-Iruñea) / Eskamendi-Sotil (Betelu)
Kimuak 2:
Arroki-Goldarazena (Lekunberri) / Salaberria-Garaño (Goizueta-Lekunberri)
Kimuak 1:
Belauntzaran-Irribarria (Lazkao) / Artaraz-Ituarte (Zeanuri-Atxondo)
Haurrak 2:
Goikoetxea-Gorrotxategi (Arbizu) / Arruabarrena-Pello (Atxondo)
Haurrak 1:
Amondo-Ibarrondo (Laudio) / Peso-Fernandez (Errioxa)
Kadeteak 2:
Sueiro-Markaida (Zaramaga-Gasteiz) / Otxoa-Unanue (Gasteiz-Azpeitia)
Kadeteak 1:
Gutierrez-Garmendia (Errioxa-Lazkao) / Yaniz-Santamaria (Oberena-Iruñea)
Gazteak:
Elola-Garmendia (Lazkao) / Murua-Balerdi (Arrasate-Antzuola)

Pilota-erremontea

IX. Nafarroako Erremonte Torneoa Irurtzunen hasiko da

Larunbatean, 18:30etik aurrera izanen da jaialdia, festetan. Sarrera librea

Erremontea sustatzeko asmoz IX. Nafarroako Erremonte Torneoa-2016 Magna Sari Nagusia antolatu du Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioak. Aipatu torneoa Nafarroako zenbait herritan jokatuko da eta larunbatean hasiko da, Irurtzunen. Astelehenean egin zuten aurkezpena, Nafarroako Kirol eta Gaztedia Institutuan, bertako zuzendari Ruben Goñi arakildarra bertan zela. Harekin batera Nafarroako Pilota Federazioko presidente Migel Pozueta, Magnesitas Navarra babesle nagusiaren finantzazuzendari Jorge Baños eta Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioko Edorta Beltzunegi eta Jaime Agirre izan ziren, Javier Urriza eta Xabier Erburu erremontistekin batera.

Irurtzungo festetan pilotak bere txokoa du urtero, eta azkenaldi honetan erremonteari ere tokia egin zaio. Izan ere, erremontea festetarako egitarauetarako kirol modalitate aproposa da, arina, azkarra eta ikusgarria delako. Beste behin, puntako erremontisten lana gertu ikusteko aukera izango dugu Irurtzunen.

Erremontistak

Bi mailatan jokatuko da IX. Nafarroako Erremonte Torneoa-2016 Magna Sari Nagusia. Lehen mailan Ezkurra II.a-Barrenetxea IV.a, Urriza-Aizpuru III.a, Uterga-Etxeberria III.a eta Endika-Ion lehiatuko dira eta bigarren mailan Erburu-Otano, Barricart-Zaldua, Beñat-Martirena eta Goikoetxea V.a-Azpiroz.

Hasiera batean maila bakoitzean guztiak guztien kontra lehiatuko dira, larunbatean Irurtzunen, agorrilaren 5ean Lekunberrin, agorrilaren 7an Donezteben, agorrilaren 11n Sunbillan eta agorrilaren 14an Iruñean antolatu diren jaialdietan. Finalerdiak agorrilaren bukaeran erabakiko dira eta finala Zubirin jokatuko da, bertan baitago Magnesitas Navarra enpresa babeslearen egoitza.

Aurretik esku pilota

Erremonte Torneoaren partidaren aurretik, esku pilotako afizionatuen mailako partida jokatuko da. Bestetik, Irurtzungo festen barruan Irurtzun txikien pilota kluba antolatu dute gaurko, ostiralerako, goizeko 10:00etan.

Pilota

Ansa eta Irurita Garcia eta Etxegoinen kontra Bakaikun

Bihar, larunbatean, 16:30etik aurrera Bakaikuko festetan

Pilotazaleendako jaialdi ederra prestatu dute Bakaikuko festetan bihar, larunbatean, 16:30ean Iturrarte Pilotalekuan. Lehenik eta behin kadete mailako pilotariak ariko dira lanean, sakandarrak guztiak eta ondoren, 18:00etan afizionatuak. Oberena klubean dabiltzan lau pilotari lehiatuko dira, tartean Asier Ansa altsasuarra.

Bakaikuko pilota jaialdia

Larunbatean
16:30ean kadeteak:
Lopez de Zubiria-Araña / Araña-Senar
Ansotegi-Lazkoz / Otxoa-Petriati
18:00etan seniorrak:
Garcia-Etxegoin / Ansa-Irurita

Triatloia

Sakanako XV. Haur Triatloia, arrakastatsua

Kimuen mailan Sakana Triatloi Taldeko Nahia Imazek eta Hegoi Lakuntzak irabazi zuten

Eguraldi zoragarriarekin jokatu zen, larunbatean, Sakanako XV. Haur Triatloia. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatu zuen proba, Sakanako Triatloi Taldearen, Urdiaingo Aitziber elkartearen, Urdiaingo Udalaren eta Nafarroako Triatloi Federazioaren laguntzarekin. Goizeko 10:00etan hasi zituzten probak kadete mailako triatletek eta segidan haurren, kimuen, benjaminen eta aurre-benjaminen proben txanda izan zen.

Lehenik eta behin, Urdiaingo igerilekuetan igeriketa segmentuari egin zioten aurre triatletek. Ondoren, igerilekuetan kokatutako boxean bizikleta hartu eta Urrizti, Sarabe eta San Pedro paraje ederretan barna aritu ziren pedalkadaka, boxetan bizikleta utzi eta azkeneko segmentuan paraje berberetatik barna korrika aritzeko. Bukaeran, merezitako ogitartekoa eta freskagarria jaso zuten guztiek.

120 partaide inguru aritu zirela adierazi digu Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak, Nafarroako hainbat klubetatik etorritakoak. "Parte-hartze polita izan da, eguraldi zoragarria eta tokia... zer esan dezakegu? Ikusgarria!" aipatu du Gerrikagoitiak. Guztia ongi atera zela gaineratu du. "Igerilekuetan kortxerak jarri genituen hiru kale osatzeko. Oso giro ederrean gauzatu ziren kategoria guztietako probak eta oso kontentu gaude".

Sakanako XV. Haur Triatloia Nafarroako Kirol Jolasetarako baliagarriak dira. Sakana Triatloi Taldeko triatletek eta Sakanako Triatloi Campusean aritu diren neska-mutikoek lan ederra egin zuten. Aipatzearren, kimuen mailan Sakan Taldeko Nahia Imazek eta Hegoi Lakuntzak irabazi zuten eta benjaminen mailan emakumezkoetan Ane Beltran de Heredia hirugarrena izan zen eta gizonezkoetan Ekain Imaz bigarrena eta Alain Razkin hirugarrena.

Triatletak, bizikleta hartzeko trantsizioan.

Sakanako Haur Triatloia Urdiainen antolatzen jarraitzeko asmoa dutela nabarmendu du Gerrikagoitiak, antolakuntzaren aldetik erraztasun asko dagoelako eta parajea zoragarria delako. "Bizikleta eta korrika probak egiteko errepidea ixterakoan ez dago arazorik. Alde horretatik toki segurua da. Eta horri ingurune ederra gehitzen badiozu toki oso aproposa da" azpimarratu du teknikariak.

Sakandarrak Sakanako XV. Triatloi Txapelketan

Aurrebenjaminak (emakumeak)
1. Alaia Etxeberria (Aranguren) 6:03

Aurrebenjaminak (gizonak)
1. Joritz Barberena (Erreka) 5:22

Benjaminak (emakumeak)
1. Ane Arrosagarai (Aranguren) 7:52
3. Ane Beltran de Heredia (Sak.) 8:21
4. Ane Iturrioz (Sak.) 8:48

Benjaminak (gizonak)
1. Julen Esparza (Tri-Ur Gazia) 7:10
2. Ekain Imaz (Sak.) 7:14
3. Alain Razkin (Sak.) 7:31
5. Jon Aierbe (Sak.) 8:17
7. Pablo Senosiain (Sak.) 8:50
11. Aitor Aldunate (Sak.) 9:27

Kimuak (emakumeak)
1. Nahia Imaz (Sak.) 13:41

Kimuak (gizonak)
1. Hegoi Lakuntza (Sak.) 13:12
15. Joseba Beltran de Heredia (Sak.) 15:32
18. Ibai Perez (Sak.) 15:41

Haurrak (emakumeak)
1. Idoia Eraso (Aranguren) 27:24

Haurrak (gizonak)
1. Gerardo Pascual (Atalaya) 24:18

Kadeteak (emakumeak)
1. Carmen Riaño (Atalaya) 52:58

Kadeteak (gizonak)
1. Francisco Sanz (Atalaya) 44:19

Mendi lasterketak

Munarriz hirugarrena 2KV Collaradan

Pirinioetako proba gogor eta ikusgarrian maila bikaina eman dute korrikalari sakandarrek

Ikusgarria da Huescako Villanua herriak antolatzen duen 2KV Collarada kilometro bertikal bikoitza. Pirinioetako paraje zoragarrietan, Villanuatik Collarada igo eta jaitsi behar zuten korrikalariek (17 km) igandean. Egon zen ere soilik Collarada igotzeko aukera (8,5 km).

2KV Collarada igo eta jaisteko proba gogorra 122 korrikalarik osatu zuten. Los Arañones taldeko Raul Criado izan zen azkarrena (2:19:35). Sakana Bizirik taldeko Aritz Munarriz etxarriarra hirugarrena sartu zen (2:26:38). "Lasterketa ikusgarria da, oso gogorra, igandeko beroak oraindik ere gogorragoa egin zuena. Villanuatik Collaradara 2.000 metro positiboko desnibela, gero atzera ere berriz herrira jaitsi... banekien sufritzea tokatuko zitzaidala. Collaradara bosgarrena iritsi nintzen. Jaisterakoan laugarren eta hirugarren postuan zihoazen korrikalariak gainditu eta hirugarrena iritsi nintzen helmugara. Emozio ezberdinak bizi izan nituen asteburuan. Larunbatean Galizan izan nintzen Hodei bisitatzen. Berari, Hodeiri eskaini nahi diot hirugarren postu hau" adierazi du Munarrizek sare sozialetan. 2015eko edizioan bederatzigarrena sailkatu zen etxarriarra.



Aritz Munarriz podiumean.

Fiti 20.a

Munarrizen taldekide, herritar eta lagun Fidel Jimenez 20.a sailkatu zen (2:48:43) eta Jose Antonio Salgado altsasuarra 57.a (3:31:49).

Salgadoren bi etapak

Aurten 2KV Collarada probarekin batera beste bi lasterketa prestatu zituen antolakuntzak, hirurei Ultra Collarada izena emanez. Ostiralean lehen etapa jokatu zen, Güena Nuei (16,5 km) izenekoa. Ibai Alba izan zen azkarrena (1:17:04) eta Salgado 16.a (1:34:49). Larunbatean bigarren etapa jokatu zen, super traila (65 km). Salgado ez zen sailkatu. Eta igandean hirugarren etapa edo 2KV Collarada (17 km) jokatu zen, arestian aipatutakoa. Esan dugun moduan Salgado 57.a sailkatu zen. Hiru probak jokatuta, Iker Carrera izan zen Ultra Collaradaren irabazlea (14:02:53).

Mikel Rubio zazpigarrena

KV Collaradan ibilbide erdia edo soilik Villanuatik Collarada igotzeko aukera zegoen (8,5 km). Aukera hau baliatu zuen Mikel Rubio irurtzundarrak. Mikel Beunza izan zen irabazlea (1:31:21) eta Zabalarte klubeko Rubiok primerako lana egin zuen, zazpigarrena sailkatu baitzen (1:42:03).

Txirrindularitza

"Poztasun handia" hartu duela onartu du Hiriberriko txirrindulariak

Javier Minguez selekzionatzaileak Imanol Erbiti, Ion Izagirre eta Jonathan Castroviejo txirrindulariak hautatu ditu Alejandro Valverde eta Joaquim "Purito" Rodriguez liderren aldeko talde lanak egiteko. Agorrilaren 6an lehiatuko dira, Rio de Janeiroko Olinpiaden linea txirrindularitza proban. Garilaren 30ean Donostiako Klasikoan parte hartuko dute eta hurrengo egunean hartuko dute Rioko bidea.

"Banekien Riora joateko aukeraren bat bazegoela baina ez nuen ilusiorik egin nahi, dagoen maila oso altua delako. Deialdia sorpresa handia izan da, poz handia sortu dit. Olinpiadetan parte hartzearekin oso emozionatuta nago, kirolari batendako zitarik garrantzitsuenetakoa baita" azaldu du Movistar Team taldeko Hiriberriko txirrindulariak. Egun Frantziako Tourrean dabil Erbiti, Quintana eta Valverde laguntzen, Jose Luis Arrieta entrenatzaile uharteararen esanetara.

Etxeberria eta Lasa Nafarroako selekzioarekin berriz

Asteburuan Txuma Proba jokatuko da Bizkaian, kadete mailako Nazioarteko Challengea. Nafarroarekin Intersport Irabiako Josu Etxeberria eta Quesos Albenizeko Ailetz Lasa ariko dira. Gaur Erandioko etapa jokatuko da (63 km), bihar Berangokoa (57 km) eta etzi Leioakoa (62 km). Aipatzekoa da Gaztetxoak Torneoko 2. urteko sailkapenean Josu Etxeberria bigarrena sailkatu zela eta Ailetz Lasa hirugarrena.

Mateo Gonzalez txapeldun

Igandean kadeteek Fontellasen izan zuten proba. Quesos Albenizeko Mateo Gonzalez txapelduna eta Marcos Pison bigarrena izan ziren. Imanol Galarza 6.a sailkatu zen, Unai Lizarraga 14.a, Joseba Huarte 15.a, Iker Cerviño 17.a, Beñat Etxezarreta 18.a, Ailetz Lasa 22.a, Josu Etxeberria 23.a, Javier Mitxaus 32.a, Jon Gil 33.a eta Xabier Mauleon 37.a. Taldeka, Quesos Albeniz bigarrena izan zen eta Intersport Irabia 5.a.

Erbiti, Purito, Valverde eta Izagirre. Castroviejo da falta den bakarra.

Erbiti Olinpiadetara

Juniorrak Tafallan eta Aiegin

Juniorrek lasterketa zuten larunbatean Tafallan (46 km). Bost txirrindulari iritsi ziren helmugara eta esprint estuan Combustibles Galdeanoko Nestor Araiz gailendu zen (2:14:01). Quesos Albenizeko Asier Etxeberria eta Xabier Maiza laugarrena eta bosgarrena sailkatu ziren. Euren taldekide Oihan Vinagre 14.a sailkatu zen, Alex Uncilla 18.a, Hodei Zia 20.a eta Daniel Izquierdo 21.a. Quesos Albeniz probako bigarren talde onena izan zen.

Igandean Aiegin lehiatu ziren juniorrak (82 km). Laguntasunako Paul Alejandro Rodriguez gailendu zen (1:50:52). Quesos Albenizeko Asier Etxeberria 27.a sailkatu zen eta Alex Uncilla 42.a.

Rural Kutxa

Zamorako Itzulia Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarreko Manuel Solak irabazi du. Bere taldekide Sergio Rodriguez bigarrena sailkatu da.

Maialen selekziora

Garilaren 22tik 24ra bitartean jokatuko da junior mailako Valladolideko Itzulia. Espainiako selekzioarekin aritzeko konbokatu dute Maialen Aramendia iturmendiarra. Ane Santesteban eta Miriam Gardachal nafarrak eta Sara Martin (Gaztela Leon), Sofia Rodriguez (Valentzia) eta Iurani Blanco (Balears) izanen ditu taldekide.

Waterpolo / Kayak

Beroaren kontra... waterpoloa

Udako kanpainaren barruan, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak waterpolo txapelketa antolatu zuen asteartean Uharte Arakilgo Itsesi igerilekuetan. 35 gradutik gorako tenperaturei aurre egiteko, primeran etorri zen.

Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak adierazi digunez, 7 urtetik 15 urte bitarteko 40 sakandarretik gora aritu ziren, taldeka lehiatuz. "Oso giro ederra sortu zen. Eskerrak Uharte Arakilgo udalari laguntzagatik eta horrelako leku zoragarria eskaintzeagatik" azaldu zuen. Patata tortilla ogitarteko goxoa eta laranjazko zukua dastatu zituzten, sari bikaina.

Ostegunean kayak Etxarrin

Mank-en hurrengo ekitaldia ostegunean, garilaren 28an, burutuko da. Etxarriko igerilekuetan, 17:00etan, kayak jardunaldia prestatu dute. Aurretik eman behar da izena (948 464 866 / kirolak@sakana-mank).

Automobilismoa

Garikoitz Flores hirugarrena I. Petilla Aragoiko igoeran

Iban Lopez de Goikoetxea seigarrena sailkatu zen

Larunbatean I. Petilla Aragoiko igoera jokatu zuten 20 pilotuk. Lehia bizia izan zuten pilotuek, lehendabiziko hirurak 2 minutu eta 19 segundotan bukatu baitzuten lana. Hortaz, ehunenekoek erabaki zuten eta Pantxo Egozkue izan zen txapelduna (2:19.064). Garikoitz Flores lakuntzarra hirugarrena sailkatu zen (2:19.619) eta Iban Lopez de Goikoetxea olaztiarra 6.a (2:39.189), bigarrena bere kategorian, Formula Libre mailan. Mikel Mendinueta arbizuarra lehen juniorra izan zen eta bere mailan, 2 eta 1 klasean, lehena. Iker Palacios lehena izan zen bere mailan, CM mailan.

Larunbatean Lesakako Rallysprinta dago jokoan eta Garikoitz Goñi eta Iban Lopez de Goikoetxea lehiatuko dira bertan.

Flores eskuinean, podiumean.

Sakandarrak I. Petilla Aragoiko igoeran

1.	Pantxo Egozkue (Silver Car EF10)	2:19.064
3.	Garikoitz Flores (BRC B49)	2:19.619
6.	Iban Lopez de Goikoetxea (Renault 5 GT Turbo)	2:39.189
11.	Iker Palacios (Speed Car GT 1000)	2:51.242
12.	Iñigo Zelaia (BMW 325i)	2:51.332
14.	Mikel Mendinueta (Peugeot 205 GTi)	2:54.767

Mendia

Mendian zortzikoa dantzatu zuten. ALTSASUKO MENDIGOIZALEAK

Bargagainen elkartuta

Bargan gora eginez, edo Urbasako pagatik joanda, aurretik edo atzetik, altsasuar mordoa elkartu zen Bargagainen igandean, Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako LV. Bargagaingo Igoeran. Sebastian Uhalde apaizak emandako elizkizunaren ondoren, auzatea izan zen eta ardoa zilarrezko katiluetan edan zuten bildutakoek. Giro ederrean, zortzikoa dantzatu zuten.

Pirinioetara bigarrenez

PEDRO GONZALEZ

Uztailaren lehen asteburuan Pirinioetan Midi d´Ossau ibilbidea egin zuten Etxarriko Larrañeta klubeko mendizaleek. Asteburuan Pirinioetara bigarren buelta egin dute. Panticosatik Respumoso aterperaino heldu ziren eta igandean Artouste izan zuten helmuga.
Zumaia-Deba. Zabalarte klubak mendi irteera antolatu du biharko. Goizeko 8:00etan aterako da autobusa Lakuntzatik. Zumaiatik Debara 15 km inguruko ibilbidea egingo dute, Flyschetik eta bertako mendi eta itsas paraje ikusgarrietatik pasatuz. Itzulerako hitzordua 18:00etan jarri dute.

Futbola

Etorkizuneko 30 futbolari trebatzen

Mank-eko futbol campuseko lehen txandan 30 gaztetxo daude

Astelehenean hasi eta ostiralean despedituko da Mank-ek antolatutako futbol campuseko lehen txanda. Peio Goikoetxea eta Iokin Lobo entrenatzaileen zuzendaritzapean, 2004tik 2006ra jaiotako 30 mutil trebatzen ari dira futbolean, Dantzalekun. Imanol Loboren laguntza dute entrenatzaileek. Teoria eta praktika uztartuz eta jolasen bidez, futbolaren nondik norakoetan sakontzen ari dira eta bukaeran igerilekuetan bainua hartzen dute. Asteazkenean Anoetan egon ziren, Errealeko instalakuntzak gertutik ezagutzen. Hurrengo astean 28 gaztetxo ariko dira bigarren txandan.

Futbol campuseko lehen asteko partaideak

Peru Goikoetxea, Gorka Gasco, Iker Lizarraga, Josu Larrea, Luken Goikoetxea, Eneko Guajardo, Pablo Senosiain, Markel Mazkiaran Oier Garcia, Aimar Lopez de Goikoetxea, Igor Aldasoro, Asier Somocurcio, Mikel Lizarraga, Mikel Rodriguez, Jose Exposito, Aitor Augusto, Asier Etxeberria, Jon Cano, Jon Lopez de Goikoetxea, Amets Aristizabal, Ayrton Santander, Jon Navarro, Aritz Sevilla, Jon Ayerbe, Oihan Guinea, Oier Flores, Eneko Iraurgi, Harri Landa, Hegoi Lakuntza eta Asier Claver.

Non erabili

TIPI TAPA OINETAKOAK
ALTSASU
60 €ko erosketagatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

VIZU ILEAPAINDEGIA
ITURMENDI
30€ko gastuarekin, %10eko deskontua.

ALDASORO HARATEGIA
ALTSASU
30€ko erosketa batengatik etxeko produktua opari.

ALFA INMOBILIARIA
ALTSASU
Etxe edo pisu baten erosketagatik 100 €ko txekea opari.

KIXKUR ESTETIKA ZENTROA
ZIORDI
30 €ko gastuarekin %20eko deskontua produktuetan.

IORTIA HORTZ KLINIKA
ALTSASU
%10 aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Azterketa doan.

JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA
ALTSASU
%5eko deskontua 50 €tik gorako erosketetan.

JON CORDON TAXIA
IRURTZUN
%10eko deskontua.

JAVIER AIZPUN HARATEGIA
UHARTE ARAKIL
50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

UHARTE GAZTA
UHARTE ARAKIL
40 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

www.guaixe.eus-en zerrenda osoa ikusgai

BAZKIDETZA 50€
948 564 275

kultura >>

Mila Koloreren hiri-artea

Intxostiapunta Gazte gunearen ondoan eta Iortia plazan dauden beirarendako edukiontziek irudi berria dute pasa den astetik. Altsasuko Udalak behar bereziak dituzten gazteei zuzendutako Gu Geu Gazte programako parte-hartzaileek, Mila Kolorekoek, margotu dituzte. Hiri-arte esku-hartze horretan laguntzaile Helena Santano Cid sortzaile altsasuarra izan dute.

Intxostiapuntako iglu moduko edukiontzian landaretza da nagusi. Koloretako ondoaren gainean hainbat belar eta landareren profilak ikus daitezke. Margolana lortzeko betetako landareak erabili zituzten plantilla gisa. Kultur gune ondokoan, berriz, Piet Mondrian margolari herbeheretarraren forma sinple eta sintetizatuetan oinarritutako hondo gorria, horia eta urdina margotu zuten. Haren gainean, pintura beltzez, Altsasuko inauteriko pertsonaiak ikus daitezke.

Programan parte hartzen dute Mila Kolore elkarteko kideen egitekoa ez da soilik margotzea izan. Aurretik, iglu itxurako edukiontziak garbitu, lixatu eta pintura ongi hartzeko inprimazioa eman zieten. Altsasuko Udalak, bestalde, guztia posible egiteko, beira jasotzen duen Ecoembes enpresaren aurrean baimena kudeatu zuen.

Hasiera batean, Santanok herriko gazteei zuzendutako jarduera moduan proposatu zuen jarduera, elkar ezagutza eta harremana sustatzeko. Mila Kolorekoek eman zuten izena eta haiekin garatu da proiektua. Parte-hartzaileak esperientziarekin pozik gelditu dira. Bere etxe ondokoa margotzeko proposatu dien altsasuarrik bada ere.

Jarraipena

Esperientzia arrakastatsuaren ondoren, Gazteria Zerbitzuak errepikatzea erabaki du. Lastailaren 21ean eta 22an izanen da, 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta.

Milakolorekoek lan bikaina egin dute. UTZITAKO ARGAZKIAK.

Zein **kartel** duzu gogokoen?



Udazken koloreak.

Biraka dantzan.

Egunez, gauez.

Altsasuarrek asteartera arte festetako kartel lehiaketako hiru finalistetako baten alde bozka dezakete

Aurten Altsasuko festak irailaren 14tik 18ra izanen dira, asteazkenetik domekara. Herriko ospakizunak iragartzeko Altsasuko Udaleko Kultura Zerbitzuak kartel lehiaketa deitu zuen. Haurren mailan 127 lan aurkeztu ziren eta helduenean 13. Epaimahai batek azken horretara aurkeztutako lanetatik hiru aukeratu ditu eta altsasuarrek, bozka bidez, horien artean aurtengo kartel iragarlea aukeratu beharko dute.

Gaur hasi eta heldu den asteazkena bitartean 16 urtetik gorako altsasuarrek gogoko kartelaren alde botoa emateko hiru modu izanen dituzte: Iortia kultur gunean, 10:00etatik 14:00etara; 012 telefonora hots eginez (astelehenetik ostiralera 8:00etatik 19:00etara) edo www.altsasu.net web orriaren bidez. Boto gehien jasotzen dituen kartelaren egileak 600 euroko saria eskuratuko du. Haurren mailan epaimahaiak aukeratutako kartelaren egileak, berriz, marrazketa materiala eta 60€.

Aurten festetako kartel lehiaketara aurkeztu diren lan guztiak irailaren 1etik 10era Iortia kultur gunean izanen dira ikusgai, 9:00etatik 14:00etara.

Gaurko eta atzoko Txaston

Larunbatean, 23:00etan, Altsasuko Urtzi tabernan

Txaston taldea 1982an sortu zen eta ordutik ari dira musikan. Arbizuko Izarra jatetxean ezkontzak girotzen aritzen dira baina, bihar, Altsasuko Urtzi tabernagatik ordezkatuko dute. Emanaldia garagarrilaren 18rako aurreikusia zegoen, baina eguraldiagatik atzeratu behar izan zuten. Gaur egungo Txaston taldea izanen da eszena-tokian lehenik. Mexikar doinuez osatutako errepertorioa eskainiko dute.

Horretaz arduratuko dira Roberto Cristobal (bateria) eta Patxi Artigas (gitarra), Longi Andueza (gitarra), Luis Fernando Andueza (baxua) eta Juanjo Mintegi (teklatua).

Dantzarako eta kantarako doinuen ondoren, taldetik pasa diren kideak oholtzara igoko dira eta 80 hamarkadako doinu ezagunak eskainiko dituzte. Taldean hasieratik dauden bi talde kideekin batera, Cristobalekin eta Artigasekin, Juan Velez (gitarra), Javier Del Rio (baxua), Mari Jose Gil (ahotsa) eta Iñaki Erbiti (teklatua) ariko dira.

Arimari... bolumena!

Unnamables taldeak larunbatean, 23:00etan, Altsasuko Arkangoa tabernan joko du eta astelehenean, 23:30ean, Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean

Bi altsasuarrek eta ziordiar batek osatzen dute Unnamables (aipa-ezina ingelesez): Kikek (gitarra), Markek (baxua, gitarra elektrikoa, gitarra akustikoa, steel gitar) eta Mariok (bateria). Haiena hiruko malgua da, pieza batean baino gehiagotan Markek gitarren bat hartzen baitu. Kikek azaldu duenez, "gurea ez dago inolako formari lotuta. Arima, besterik ez da". Hari segika arnas luzeko kantuak sortzen dituzte, bolumen betean.

Sokazko instrumentuak bai baina bateria oso presente dago hirukoaren musikan. Bateria ohiko sekzio erritmikoaz aparte, nortasun propioa duen instrumentua da taldean. Soken pareko protagonismoa du. Haien entsegu lokalekoak kontzertuen pare dira, zuzenean jotzeko gogo bizia baitute. Bi emanaldiren bezperan hartu ditugu. Haiena hainbat estiloren "zepelina" dela aurreratu digu Mariok. Marken iritziz, "aipa-ezina".

Sorrera, eta jarrera

Unnamables azaroan sortu zen. Mark eta Mario lokalean saltseatzen zeuden ordurako. Mariok "betidanik" ezagutzen zuen Kike, "Sakanako musikari handia". Hirugarren kide baten bila zeuden eta Kikerengana jo zuten. Elkarrekin arituak ziren Gamesa lantegiko itxierakoan protestarako sortu zuten taldean. Hirurak elkartu ziren.

Marioren ustez hirukoak duen arima "aparta" da. Kikek esan duenez, "bakarrik ateratzen da, ez zaio ezer esan behar.. Jotzeko gogo handia duten hiru pertsona gara; formak, baita edukiak ere, ez zaigu inporta. Berdin dio. Bizi dugun unea adieraztea da forma. Niretako paregabea da, sekula ez zitzaidan gertatu".

Jo ta jo

Entsegu lokalera iritsi eta "asko" inprobisatzen dutela ziurtatu du Kikek. "Gure kantuak jotzen ditugu; inoiz ez dira berdinak. Haiek asko joz, gero moldatu egiten ditugu, musika unea, oraina dela pentsatzen dugulako. Zuk hori errespetatuz gero, berez sortzen da. Benetan une hori nahi baduzu, une hori atera egiten da".

Kikek ziurtatu duenez, taldean Mark kide garrantzitsua da: "taldeko anglosaxoiar erroa da. Taldea erro horrekin, badirudi etengabeko berritasuna dela; eta, aldi berean, soiltasuna". Hala ere, gaineratu duenez, "ez da eskarmentu handirik behar, guztia ematea eta egiten ari den horretan lan egitea besterik ez da behar. Nik uste dut nire bizitzan ez dudala hainbeste jo, ezta lehen jotzen nuenean ere. Jo. Jotzea. Zerbait jotzen duzula sentitzea".

Mario "jenio" bat dela errepikatu du Kikek: "sinestezina da zein moldakorra den; zein gauza egin ditzakeen. Zeren bateria jotzeaz aparte, gitarra jotzen du, kantatzeko eta beste gauza askotarako gai da: grabatzea, soinuaz daki… Sinestezina. Izan dugun ezaguera laburra, bizia eta emankorra izan da".

Kikerekin edonora joan daitekeela dio Mariok: "eskola eta arte guztia du. "Duendea" du. Musiko onak ezagutu ditut, baina Kikek sendotasuna eta bide sinestezina ematen dizu. Honekin edonora. Laguntasun handia sortzen du. Nik esaten dut andregaiak baino okerragoak garela, hirurak andregaiak dirudigulako". Musikari handia dela dela aitortu du; "kantuen eraikuntza, eskarmentua… sinestezina. Azaltzen den zaila da".

Sormenaz

Kantuak jotzen hasiz sortzen dituzte. Horretan, Mariok hiruen berezitasuna aipatzen du: "jotzean ez dugu pentsatzen, sentitzen dugu. Sentipen horretatik sortzen dira kantak. Dugun egunaren arabera ere. Dena sentipen batekin hasten da". Markek argitu du aurretik jo behar dutenaz ez dutela hitz egiten, "unean sortzen dena da". Kike, laburbilduz: "inprobisazioa sortzen da eta, akaberan, bidea sortzen du eta zerbaitean bihurtzen da, edo ez. Baina bidea egiten badu eta zerbaitean bihurtzen bada, inprobisazio hori Unnamables-tu dugu. Berdin esaten dugu. Eta berdin esaten dugunez, "aipa-ezina" da". Aitortu duenez, "dagoeneko ez dago ezer originalik, baina zurera erakartzen duzu eta agian ez duzu ezta ezagutzen ere. Picassoren gorria ez da Velazquezen gorria!"

Etxetik doinu edo oinarri batzuk eraman izana eta haien gainean inprobisatzea, "noizean behin" gertatu izan zaie. Hala ere, Kikek berretsi duenez, "guretako garrantzitsua da une bakoitzean sortu beharrekoa sortzea. Egunen batean ez dugu ezer esan beharko. Musika tresna hartu, hasi eta etor dadila etorri beharrekoa. Unea Unnamables-ten dugu". Mark-ek "gozatzea" aipatu du.

Letrez galdetuta, "sentitzen duten zerbait" izan behar dutela nabarmendu du Markek. Kikek gaineratu dunez, "letrarekin zerbait egiten badugu, definituko gaituen zerbait izanen da". Eta Mariok errematea: "musika ere kantatzeko eta kontatzeko modua da. Ez du letrarik baina sentimendua du, beraz, zerbait adierazten du. Neurri batean, horregatik dago instrumental asko. Arima asko". Kantatzen diotenean, hala ere, "bizitzari" kantatzen diote. Gaur egun hamar kanta dituzte.

Kontzertuez

Ziordia, Altsasu, Gasteiz, Villatuerta, Lizarra, Barakaldo, Iruña…Zortzi kontzertu eskaini dituzte eta publiko gutxi izan dutela aitortu dute. "Baina guk ez dugu publiko gutxi edo asko dagoen ikusten. Berdin dio". Orain arte tabernetan jo izan zuten, Gasteizko Alde Zaharreko festetan salbu, kalean egin zutela. "Oso esperientzia ona izan zen. Onena. Oso gustura egon ginen".

Aurreneko kontzertuaz, Ziordikoaz ere oso oroitzapen ona dute. Kikek ziurtatu digunez, emanaldi hartan gorpuztu zen taldea: "Mark-en "etxean" geunden eta nahi izan genuena egin genuen soinuarekin eta bolumenarekin. Bukatzean, esan genuen: baina zer gertatu da hemen!" Azaldu duenez, "musikari dedikazio handiz" aritu ziren; "oso integratzailea eta, aldi berean, azalpenezkoa. Jabetu ginen halakorik ez zela hemen sekula jo". Markek gogoan du orduan bost kantu zituztela eta gainontzekoa inprobisazioa izan zela. Haren ondoren lokalean sormen jarioa etengabea izan da, "gozatzea izan da. Segi dezala efektuak".

Bolumen handian eskaintzen dituzte emanaldiak. "Entseatzean ere horrela da. Bolumen hori kentzen badugu eta beste zerbait egiten badugu, guretako ez da egiten ari garena.".

Ezer grabatzeko asmorik duten galdetuta, Mariok esan digu kantu batzuk bukatuta dituztela, "erakutsi ahal izateko fintzeko gogoa ematen du". Baina Markek azpimarra:, "garrantzitsuagoa zuzenean jotzea da". +www.guaixe.eus

Gasteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 55%	euria: 35%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 10%
Min: 14 Max: 19	Min: 13 Max: 21	Min: 13 Max: 24	Min: 13 Max: 28	Min: 14 Max: 24	Min: 14 Max: 22	Min: 13 Max: 23

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	38	10.5	2.1
Etxarri A.	36.8	6.9	6.5
Altsasu	36.5	8	0.8
Aralar	27.8	4.8	4.3
Urbasa	33.5	6	0

: ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
27	2	10	18

>>11 galdera

Ainhoa Ganuza

Ganuza Anaiak enpresako langilea

Testua: Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

1. Ganuza Anaiak enpresak 30 urte bete ditu. Zer eskaintzen du?
Gaur egun gehienbat sukaldeak, komunak eta horma armairuak eskaintzen ditugu, denak zein denak neurrira eginak.

2. Sukaldeak dira zuen espezialitatea. Zergatik?
Aita eta osaba –enpresaren sortzaileak– sukaldeetan zentratu ziren hastapenetan, eta eraikuntzaren sektorea garai oparoa igarotzen ari zenez, sukaldeekin aurrera egitea erabaki zuten. Hortaz, sukaldeak gure produktu izarra direla esan daiteke, hasieratik enpresaren ardatza izan baitira. Dena den, esan bezala, gaur egun gure eskaintza sukaldeetatik harago doa: bainugelak, logelak eta horma armairuak ere eskaintzen ditugu.

3. Zein da zuen filosofia?
Enpresa txiki, familiar eta ibilbide luzekoa da gurea. Merkatuko marka onenekin lan egiten dugu, gure zerbitzuan kalitatea bermatze aldera. Gure helburua bezeroa erabat pozik gelditzea da, eta horretarako kalitatearen alde apustu egiten dugu.

4. Zer alde dago zuen enpresaren eta konpetentziaren artean?
Guk fabrikazio propioa daukagu. Dena neurrira egiten dugu. Horrek konpetentziatik ezberdindu egiten gaitu. Dena kanpotik egina ekarriko bagenu, gure nortasuna galdu, eta bezero gutxiago izango genituzke. Ekoizpen propioaren eta kalitatearen aldeko apustuan dago gure arrakastaren giltza.

5. Zuen produktuak zein motatako bezeroentzat daude zuzendurik?
Denetariko bezeroak ditugu jomugan: gazteak, helduak, familiak, bakarrik bizi diren pertsonak… Gure eskaintza etxebizitza duen pertsona orori dago zuzendurik.

6. Bezeroak gehienbat Sakanakoak dira, edo bailaraz kanpokoa denik ere bada?
Denda Etxarrin dugu. Bezero gehienak sakandarrak dira, baina Goierri ingurutik ere jende asko etortzen da, baita Agurain aldetik ere. Horrek gure produktuak kalitatezkoak direla eta jendeari gure zerbitzua erakargarria suertatzen zaiola erakusten du.

7. Nolakoa da ekoizpen prozesua?
Lehenik bezeroa guregana etortzen da, proposamen eta neurri batzuekin. Guk horrekin aurrekontu bat egiten dugu. Bezeroak aurrekontua onartzen badu, bere etxera joaten gara neurriak hartzera. Behin neurriak ditugula, fabrikazio prozesuari ekiten diogu. Prozesu honetan altzariak neurrira egiten dira, oztopo eta hutsune guztiak saihestea posible eginez. Horrela, altzariak espaziora erabat egokitzen dira.

8. Hiru hamarkada daramatzazue ekinean. Garai on eta ez hain onak ezagutuak izango zarete.
Bai. Nik pertsonalki garai onik ez dut ezagutu, baina urte hauetan guztietan halakoak ere izan dira, bai! Lehen bezeroak euren kabuz etortzen ziren gure produktuak erostera. Orain, ordea, alderantziz gertatzen da: bezeroen bila joan beharra dago, produktuak saltzera. Eraikuntzaren sektorea ongi zegoenean salmentak aise lortzen ziren, baina krisiak erabat aldatu du egoera.

9. Krisi ekonomikoak darabiltzazuen materialetan ere eragina izango zuen.
Bai. Materialari dagokionez aldaketa nabaria izan da. Lehen egur asko jartzen zen, orain material merkeagoak erabiltzen diren bitartean. Horrez gain, krisiaren aurretik sukaldearen egituran elementu gehiago egon ohi ziren. Orain sukaldeek egitura sinpleagoa dute. Eta ez soilik guk erabakita: bezeroek ere hala izatea eskatzen dute.

10. Nola egin diozue aurre halako egoera bati?
Alde batetik, bi langile jubilatu egin ziren. Horrela, langile kopurua seitik laura murriztu genuen. Horrez gain, bestelako kostuak ere murriztu ditugu. Esaterako, lehen prezioak ez genituen begiratzen, eta orain bai. Gerrikoa estutu behar izan dugu aurrera egin ahal izateko. Eta eskerrak ibilbide luzeko enpresa bat garen. Izan ere, bidea eginda izateak asko lagundu digu urterik zailenetan.

11. Pixkanaka egoera hoberantz doala ikusten duzue?
Une honetan egoera nahiko aldakorra bizi dugu. Gorabeheratsua. Kolpeka goaz. Hilabete onak kateatzea zail dago. Egoera gehiegi hobetu denik ezin daiteke esan.